

Goienkaria

2006ko apirilaren 12a > Eguaztena > VI. urtea > 240. zenbakia > Doan banatzeko

www.goiena.net

"Ikasi egin gura
nuen eta
Errepublikako
eskoletan
erakutsi zidaten
dakidana"

Trini
Ruiz de
Alegria > 07



G2a

Debagoieneko
arbola
aipagarrienak > 25

DEBAGOIENA
Turismo eskaintza zabala Aste
Santuan ibarreko herriean > 04

HERRIAK
Aberri Egunerako dei egin dute
alderdiek eta erakundeek > 05

FUTBOLA
Realeko nazioarteko gazte mailako
txapelketa, gurean ere bai > 24

OSASUNA > ALERGIAK

Ohiko urtea izaten ari da, alergologoen esanetan

POLENA Pinuaren eta
urkiaren polenari eta,
bestetik, gramineoen
polenari alergia
diotenak hasi dira
sintomak igartzen

IGOTZEN Mota
guztietako gero eta
alergiko gehiago
dago, eta gaur egun
populazioaren %20
da alergikoa

ARETXABAleta > UDALA

EBk ere gobernua utzi du

EBk dio Sarasuaren
kanporatzearen
berri hedabideen
bidez izan zuela > 19

Aste Santuan GOIENKARIA oporretan

Aste Santuko oporrak direla-eta, eguztenean argitaratu dugu oraingoan GOIENKARIA eta hurrengoa apirilaren 28an ate-rako dugu. > 04

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Gutunak > 6
Herriak > 09-23
Kirola > 24
Gazteak > 27
Sailkatuak > 28
Eskelak > 29
Telebista-Irratia > 30
Non-zer > 31



ETORKIZUNA AIREAN Aurten amaitzen zaio Arantzabal kontratua Zaragozan.

EL PERIODICO DE ARAGON

FUTBOLA > ELKARRIZKETA AGUSTIN ARANTZABAL BERGARARRARI

"Kopa lortzen ez badugu, alferrik izango da honaino egindako lana"

Arantzabalek gaur jokatuko du Kopako finala Espanyolen aurka > 24

SUPER AMARAN autoa uztea ez zaizu ezer kostatuko



Chevrolet Aveo berria, kanpotik miretsi edo barrutik gozatu!

SARRERARIK GABE

60 €/hilean - LEHEN URTEAN
120 €/hilean - HURRENGO 100 KUOTAK
PREVER PLANA GASOLINA BARNE. %5,80ko UTB
Aveo 1.4 LS 16 v



Giauto 902 345 225

Otaola Etorbidea, 27 · EIBAR · Tel.: 943 70 08 41
Karobi Industrialdea z/g · OLABERRIA · Tel. 943 88 51 50

www.chevrolet.es
Chevrolet Aveo berria
Chevrolet gehiago da



2006/04/15 arte baldagarria

OSASUNA > UDABERRIAREKIN BATERA, POLENARI ALERGIA GARAIA HASI DA

Kezka dagoen arren, alergia aldetik ohiko udaberria izaten ari gara

ARDURATUTA Medikuek diote jendea hasi dela eurengana jotzen, kezkatuta dagoelako, baina ez dago aparteko alergia arriskurik

EGURALDIA Alergikoak sintoma gehiago edo gutxiago izango ditu eguraldiaren arabera: udaberria euritsua bada, hobeto egongo da

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE
Gurean dugu, bete-betean, udaberria eta, askorendako, gurean da ere horren urteroko lagun belburgaria: alergiak. Pinuaren eta urkiaren polenari alergikoak hasiak dira sintoma gogaikariak igartzen: arnasestuak, sudurreko eta begietako azkura, doministikuak, mukitasuna, arnasa hartzerakoan bularreko zaratak... Adituen esanetan, ohi denboraldia izango da alergikoendako, hau da, ez beste urte batzuk baino okerragoa. Hala ere, sintomak leuntzeko moduak dauden arren, oraindik igarri egiten dira.

Udaberria ez da ohi baino txarra goa izango polenari alergia diotenendako, hortaz. Zehazki zelakoa izango den ez dago esaterik aurrerapen handiarekin. Izan ere, eguraldia da baldintza handiena. Polena landareek elkar ernaltzeo atmosferara botatzen duten substantzia bat da; negua hezea izan bada, landareak indartsuago egongo dira eta polinizaciona handiagoa izango da; baina udaberrian bertan euria egiten badu, polena lurrera erortzen da eta alergikoak hobeto egoten dira. Ezin da epe ertain edo luzerako aurreikuspenik egin, hortaz; beti eguraldiak agintzen duelako horretan. Hala ere, gaurko egunerako edo asterako aurreikuspen bat posible da, atmosferan dagoen polen-hazi kontzentrazioa neurrtuta eta eguraldiari begiratuta.

Hala, une honetan pinua eta urkia dira polena isurtzen ari diren zuhaitz motak. Bestetik, itzaleko platanondoa ere lortzen hasi da, eta Euskal Herrian, adibidez, oraingo astean erdi maiako polen-hazi kontzentrazioa

Polenari alergia bera saihesteko modurik ez dago, baina sintomak leuntzeko tratamenduak daude, eta baita txertoa ere, gaixo gehienei on egiten diena

Alergikoek hala izateko joera genetikoa dute, baina alergiko egin egiten da pertsona bizitzan zehar, eta bizi-ohiturek, ingurumenak... eragin handia dute

egon zen. Halako aurreikuspenak honako webgunean aurki daitezke: www.uco.es/investiga/grupos/re/a/polen1.htm.

GRAMINEOENA, ARRUNTENA
Udaberriko alergiena oso mundu zabala da. Polenari alergia dioten guztiek ez diote polen mota berberari alergia. "Polenari alergia mota arruntena gramineoen polenari da", azaltzen du Ascension Arantzabal alergologo arrastearrak. Udaberria hasi zenean, jende asko doakio kontsulta. Egunotan, "bereziki pinuaren eta urkiaren polenari diotenak dato; batzuk hasi dira gramineoen polenarekin ere", dio. Gramineoen polena, hain zuzen, apirilean hasi da igartzen, eta bete-betean izango da maiatz eta ekain inguruan. Debagoienean alergia sortzen duten beste landare batzuk dira plantaina, hurritza...

Pinuaren polenari alergia ere badago, eta orain sufritzen ari dira hainbat debagoiendar. Debagoiendar asko Gasteizko Santiago Ospitaleko alergologia zerbitzura joaten dira, eta hango mediku Nagore Bernedok dioskunez, "beste leku batuetan baino arrantza da gurean pinuari alergia; hala ere, ez da arruntenetako".

ALERGIA GARATU EGITEN DA
Alergia zergatik sortzen den ez dago guztiz argi. Sistema immunologikoaren errereakzio bat da, eta zientzialariekin badakitena da. E immunoglobulina delako proteina oso maila altuan dutela polenari alergia diotenek. Izatez, parásitoen aurrean gorputza defenditzea da euren zeregina, baina, orain parásitorik ez dugun arren, zenbaitengana, beso elementu batzuei errereakziona-



SINTOMAK Edozein motatako polenari alergia diotenek begi eta sudurreko azkura, eztula, domi-

BEGI-KOLPE BATEN

> POLENA
Zuhaitzek eta landareek elkar ernaltzeko askatzen duten hazia da. Polenari alergia dioten guztiek ez diote polen mota berberari.

> ARRUNTENAK
Gramineoen polenari alergia da Debagoienean arruntena. Belarra, caracalla babarruna, burruska... gramineoak oso-oso arruntak dira landaretza-guneetan.

> GARAIA
Gramineoen polinizazioa apirilean ekainera izaten da. Zuhaitzena

otsailean hasten da dagoeneko. Gurean pinu asko dagoelako, haren polenari alergia nahiko zabaldua dago ere.

> ZERGATIA
Joera genetikoa dute batzuek, baina bizi-ohiturek zerikusi handia dute alergiko egiterakoan.

> ZER EGIN
Alergia bizitzan zehar ager daiteke. Polenaren kasuan, eztula, azkura, doministikuak... dira sintomak. Horiek agertuz gero, medikuarengana jo lehenbailehen.



Pilulak ere badaude alergiaren sintomak tratatzeko.



nistikuak, arnas hartzeko zaitasunak... izaten dituzte polena arnastean.

egin daiteke. Gurean, pinuari edo mariskoari alergiak horren adibide dira. Japonian arrain asko jaten dute, eta arrainari alergia dioten lagun asko dago.

Beste datu bat da gero eta alergiko gehiago dagoela, eta bizi-moduak, inguruneak... zerikusia duela, Arantzabal doktoreak dios-kunez: batetik, leku kutsuetan edo oso industrializatuetan, Debagoiena kasu, polenari alergiko gehiago dago; bestetik, umeak oso babestuta egoten dira, eta "sistema immunologikoa desbideratuta edukitzten dute", dio medikuak. Hala, gaur egun populazioaren %20 alergikoa da, eta 2020rako aurreikusten da populazioaren erdia izatea alergiko.

MEDIKUAREN GANA JO

Alergien gaineko alarma udaberrian pizten da, baina polenari alergia ez da alergia mota arruntzena Debagoienean, akaroei alergia baizik. Arantzabal doktoreak dioenez, haien gehiago sufritzen dute udazkenean. Janari mota jakin bat alergia diotenak ere badaude: "Adinaren arabera doa. Umeengan, esneari, arrautzei edo arrainari alergia da zabalduna; helduengan, mariskoari edo fruitu lehorrei", dio adituak.

Sintomak ere askotarikoak izaten dira: janariari alergia diotenek urtikaria izaten dute; polenari diotenek, arnasestua, sudurreko eta begietako azkura, doministikuak... Egin beharrekoa da lehenbailehen medikuaren gana jo; familia-medikuaren gana edo zuzenean aditu batengana, adibidez. Gaixoa krisialdi baten badago –adibidez, itolarria badularrialdieta jo behar du. Alergiiek bizi daiteke, baina ez da krisi alergiko bat gutxietsi behar.

Tratamendu gehienek sintomak eragozten edo leuntzen ditute, ez alergia bera. Antihistaminiok, inhalagailuak edo pilulak daude. Beste aukera bat da txertoa hartzea. Kontuan hartu behar da txertoarekin tratamendua luzea dela: hiru bat urtez hartu behar da, gutxienez. Txertoaren eragina desberdina da pertsonaren arabera, baina gaixoan %85 hobetu egiten dira.

tzen du proteina horrek; polenari, adibidez, kanpoko eraso bezala interpretatzu. Alergikoak hala dira aurre-baldintza genetikoa dutelako: guraso alergikoentzako %80ko aukera ditu hura ere alergiko izateko.

Baina bitxikeria bat da alergiako-mota guztietako alergiak–

garatu ere egiten direla, Arantzabal doktorearen hitzetan: "Aurre-joera bat baldin badago, alergiko egin egiten gara, inguruaren dugun zerbaiti edo sarri erabilten dugun zerbaiti". Adibidez, urte askoan katuak dituen pertsona bat, aurre-joera izanez gero, denborarekin katuei alergiko

rra da eguraldi ona egitea. Gurean, leku euritsua denez, polenari alergia diotenak hobeto egoten dira.

Badago urte osoan polenari alergia izateko arriskua dutenak?

Horma-belarrak oso polinizazio luzea du, baina Mediterraneo aldean da askoz arruntagoa.

Zer egin behar du polenari alergia dion bat?

Ahal dela, leku itxietan egon; mendira, zelaira... ez joan; autoan doanean, leihatilak igota eraman; bizi-kletan edo motorrean ez ibiltzea, batez ere egun eguzkitsuetan...

Tratamendua ere badago, ezta?

Bai: zenbait botika mota har daitezke sintomak leuntzeko. Txertoak ere badaude. Tratamendu luzeak dira, gutxienez hiru urtekoak. Jende gehienak hobekuntza igartzen du.

Alergiko bat jaiotzetik da alergikoa?

Aldez aurreko joera genetikoa dago, baina alergiko egin egiten gara. Pertsona batzuk zergatik egiten diren alergiko eta beste batzukez, hori oraindik ez dakigu.



Arantzabal doktorea, bere konsultategian.

L.K.

Azpiegiturak

Azpiegituren gaineko gehigarria, apirilaren 28an, egubakoitza, GOIENKARIArekin batera

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA





TURISMO BULEGOAK Ibarrean bost turismo bulego daude, goizez eta arratsaldez zabalik; argazkian, Bergarako Turismo Bulegoa.

tala ikusteko ere antolatu dituzte bisita gidatuak herri hartako turismo bulegoan.

Eta bukatzeko, turismo kulturala egiteaz gainera, bestelako zerbaite nahi duenak jakin bezia Debagoienak mendi-ibilbideen sarea daukala; guztira, 21 PR (ibilbide txikiak), guziak ere homologatutakoak eta ondo seinaleztatuta daudenak. Informazioa eskura daiteke, esaterako, ibarreko turismo bulegoan.

Horren harira, esan beharra dago ibarrean bost turismo bulego ditugula: Bergaran (San Martin Agirre plazan); Gatzagan; Oñati (San Juan kalean); Eskoriatzan (Ibarraundi Museoan) eta Debagoieneko informazio zentro nagusia, Arantzazun. Guziak daude zabalik goizez eta arratsaldez.

Informazio gehiago behar duenak jo dezake, baita ere, turismodebagoiena.com helbidera.

TOKI GEHIENAK BETETA

Turistei dagokienez, berriz, Debagoieneko hotel eta ostatuek aurreikuspen onak dituzte Aste Santuari begira. Guztira, 848 toki daude ibarrean ostatu hartzeko eta erdia baino gehiago bete egingo da. Esaterako, ia landetxe guziak (14 daude) turistaz betekoa dira. Batez ere, Madrildik eta Kataluniatik etorritako dira, baina baita Euskal Herritik bertatik ere. Batzuk, gainera, Bergarako Lamaño-Etxeberri, esate baterako, Aste Santuko egunez gain Pazko astean ere beteta egongo dira. Arantzazuko Hospederia (85 lagunendako tokia) ere jaiegun hauetan bete-beteta egongo dela jakinarazi digute.

Osterantzean, batik bat lan egunetako bezeroetatik bizi diren hotelek (Hotel Mondragon, Bergarako Ormazabal...) gutxiago igarriko dute turisten eragina. Une honetan erdia inguru dute beteta, baina espero dute Aste Santuko egunetan gehiago betetza; izan ere, "oporrak igarotzea Euskal Herrira datorren turista askok Donostian, kostaldean edo beste hiriburu eta ostaturik aurkitzen ez badute, barrualdeko jotzen dute ohe bila", esan digute Mondragon Hotelean.

DEBAGOIENA > TURISMOA

Aste Santuan bisita gidatuak eta ibilaldiak egin daitezke ibarrean

Aurreikuspen onak dituzte ibarreko ostatuetan; batez ere Katalunia eta Madrilgo bositariak etorriko dira, bereziki landetxeetara

GOIENKARIA > DEBAGOIENA

Gure ibarrak, batez ere, turismo kulturala eskaintzen dio bisitan datorrenari. Aste Santuari begira, esaterako, bisita gidatuak antolatu dituzte ibarreko zenbait lekutan. Esaterako, halaxe egingo dute Arantzazuko Santegian bihartik, apirilaren 13tik hasita, goizez zein arratsaldez, 12:30ean eta 16:00etan.

Oñatitik aldendu barik, Sancti Spiritus Unibertsitatea eta San Migel parroquia ere bisita daitezke, 12:00etan eta 17:00etan. Eta unibertsitatea ikusteko aukera ere badago, ordu erdian behin.

GATZ MUSEOA ETA IBARRAUNDI

Leintz ibarrean, berriz, Gatzagan Gatz Museoan gure arbasoen langintza berezi horren gaineko-

ak ikas eta ikus daitezke bisita gidatuetan, 12:00etan eta 17:30ean (euskaraz). Eta historia, historiaurrea edo etnografia nahiago dituenak Ibarraundi Museoa bisita dezake, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Hori bai, bisita gidatuak aurrez eskatu behar dira.

Bergara aldera etorrita, berriz, herriko gune historiko monumen-

Ezustekorik ezean, apiril amaierarako lau bide Epelen

Egunetik egunera igartzen da aldaketaren bat Epele eta Kaskonategi artean. Izan ere, apiril amaierarako bukatuko dituzte Arrasateko sarreran egiten dabiltsan lanak. Hala jakinarazi digute bai Diputazioko baita obra hori egiten dabiltsan enpresako ordezkariek ere. Jakina, betiere eguraldiak edo bestelako ezustekoren batek atzera ere oztopatzen ez baditu lanak.

Kontuak kontu, badirudi laster erabilgarri izango ditugula egokitzen dabiltsan lau bideak; ea, bida, modu horretan arintzen den behingoz Arrasate eta Bergara arteko errepidearen zirkulazioa.



XABIER URTZELAI

> ISTRIPUA
Arrasateko gizon bat hil da Oñatin, auto istripuan

Oñatin, Ibarra pareko sarrenan izan zen istripua astelehen eguerdian. Mercedes etxeoko auto bat errepidek irten eta kutxatila bat jo zuen. Ibilgailuaren gidaria Arrasateko eskualdeko ospitalera eraman zuten, zauriak sendatzera. Larriak ziren, ordea, eta, ondorioz, minutu batzuk geroago hil egin zen A. M. A. A. 43 urteko gizonezko arrasatearra. Ertzaintzak ikerketa zabaldu du, ezbeharra zerkeragin zuen argitzeko.

> EGURALDIA
Aste Santurako giro "polita" iragarri du Joxe Landak

Joxe Landa eguraldi adituak esan digu Aste Santuan eguraldi "polita" izango dugula: "Eguenean giro epela izango da eta egubakoitzean ere mai-lla horretan mantenduko da; egunaren amaieran baliteke ekaitz arriskua egotea eta zapaturako eguraldi kaskarra lagatzea, haizetsua. Domenkan hobetzena joko du eta astelehenerako eguraldi ona geratuko da. Bestalde, Pazko astean giroa berriro epelduko da, eta udaberri giroa ekarri".

> AHT
Ibilaldia antolatu dute Durangotik Bilbora AHTren aurka

Eguzkik antolatuta, *Pausoz pauso... AHT gelditu* lelopean mendi martxa izango da apirilaren 13an, 14an eta 15ean. Durangoko Andra Mari elizako arkueetatik 11:30ean abiatu eta hiru etapatan Bilborainoko ibilbidea egitea da asmoa; Zornotzan eta Galda-kaon geldialdiak egingo dituzte. Ibarreko AHTren aurako taldeak dei egin du mobilizazioan parte hartzen. Izena emateko 656 79 08 00 telefonora deitu beharko da.

> GAZTEAK
Ekintza bereziak daude Aretxabaletan eta Arrasaten

Atxagazte gaztelekuaren ekintza bereziak izango dira Pazko astean: bitxi tailerra, frontenis, ginkana, merienda, skate ikastaroa, Deba-Zumaia irteera eta argazki rallya eta ekintza libreak. Arrasaten ere denetariko ekintzak izango dira gazte txokoetan: Urkulura irteera, hanka-palo ikastaroa, futbito txapelketa, afari-merienda eta zinema emanaldia, besteak beste. Argibideak gazte txokoetan jaso daitezke.

POLITIKA > ABERRI EGUNAK 75 URTE

Aberri Egunerako deia egin dute alderdiek eta erakundeeek

Iruñean, Bilbon,
Gernikan eta Heletan
izango dira eguneko
ekitaldi nagusiak

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA
Apirilaren 16an Aberri Eguna dela eta, alderdiek eta erakundek hainbat deialdi egin dituzte.

Udalbiltzak deituta kontzentrazioak izango dira eguerdian udaletxeen aurrean; arratsalde-

an, berriz, ekitaldi nazionala egingo dute, 18:00etan, Iruñeko Anaitasuna kirolegian.

ALDERDIAK
EAJk ekitaldi politikoa egingo du Bilboko Plaza Berrian, 12:00etan.

Josu Jon Imaz EBBko buruak eta Juan Jose Ibarretxe lehendakariak egingo dute berba.

EAk Gernikan ospatuko du Aberri Eguna. 12:30ean mitina izango da, Begoña Erraztiren eta Unai Ziarretaren eskutik, merkatu plazan.


Aralarrek bat egingo du Aberitzaleen Batasunak Heletan, Iparraldean, antolatu dituen Aberri Eguneko ospakizunekin.

Batasunak, berriz, bat egingo du Udalbiltzak herriean egingo dituen kontzentrazioekin eta Iruñeko ekitaldiarekin.



Zeu zara Gipuzkoaren motorra

Abian jartzen dugun egitasko berri bakoitzaren atzean, erronka bakoitzaren atzean, pizten den ilusio bakoitzaren atzean, zu zaude. Zeu zarelako Gipuzkoaren motorra.



Trena bai, AHTrik ez!

Piter Encinas (ESK)
Arrasate

Eskutitz hau baikor hasi nahi dugu, gauza guztien kontra, edozein proiekturen kontra, egotea leporatzen digutelako. Bainan hori ez da egia osoa. Baietz esaten diogu *betiko* trenari, garraio publiko ona dela uste dugulako. Ekologien ikuspegitik, ez da autobioa bezain kaltegarria. Eta, jakina, ez dago autopistekin konparatzetik, eta are gutxiago AHTk eragingo duen hondamendi ekologiko ikaragarriarekin.

Betiko trenari bai. Herriak eta pertsonak hurbiltzearen alde gaudelako. Bainan autopsiei, azpiegitura ikaragarri horiei, ezezko biribila emateko ordua iritsi da, herrixken xarmari muzin egiteaz gain, herrixka horien eta bertako biztanleent isolamendua areagotzen baitute. AHT trena eraikiz, isolamenduaren arazoa larriagotu egingo da. Autobidetik edonoiz atera gaitezke; abiadura handiko trenetik ez, ordea. Hiriburuak lotzeko baino ez du balio.

Orain ezet esaten dugu, hamaika arrazoigatik. Izan baditugu hamaika arrazoi, baina bakar batzuk aipatuko ditugu. Ezezko biribila esaten diogu, milioika metro koadro baso, larre, etab. desagertuko direlako. AHTk ez dio ezertan lagunduko lehen sektoreari, baserri pila bat desagertuko baitira. Gure inguruneko paisaiei ere ez die mesede handirik egingo basakeria ikaragarri horrek.

Ekonomiaren ikuspegitik, sekulako dirutzak, milioika

euro, xahutuko dira lan faraoniko horren kilometro bakoitzean. Eta diru publikoarekin ordainduko da dena. Bitartean, Euskadin, gure herri txiki honetan, milaka lagun pobreziaren eta miseria-ren atalasean bizi dira. Aberrazio hutsa iruditzen zaigu, hitz leunak erabiliz.

Geure buruari egiten diogun galderetako bat hauxe da: nork aterako du etekina diru publikoarekin egindako lan horretatik?

Obren irabaziak, negozio bihurtuta, harrobi-enpresaburuak, eraikuntza-enpresen, bankarien, politikarien... eskuetara joango dira. Lurraldeko baserriak saldu nahi ez dituzten baserritarrei, berriz, jabetza kenduko diete eta beraien etxetik bidaliko dituzte kalte-ordinak lotsagarriak, hutsaren parekoak, eman ondoren.

AHT ez da trenik onena, ezta hurrik eman ere. Ez da egokia gure herriko orografia-rentzat. Nahi beste tunel edo bide-zubi egin arren, ezinezkoia izango da "aditu" aurreikuspenetan aipatutako abiadura lortzea: 250-350 km orduko.

Diskurso filosofikoari helduz, bete-betean esan dezakegu, zalantza izpiritik gabe, abiadura handia ez dela askatasuna, tokietara minutu batzuk lehenago heltzeak benetan ez duela ezertarako balio. Lasai eta presarik gabe bizitza askoz ere baliotsuagoa da, eta gainera, askoz ere osasuntsuagoa.

Bukatzeko, egin dezagun azken gogoeta: gaur egun, barra-barra hitz egiten da energia aurrezko beharraz, negutegi-efektuaz, Planetaren beroketaz, eta abarrez. Bada, proiektu hori inposatzea

Goienkaria

Argiratzalea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendaria nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Sailetako ardudunak Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Miran Alzu, Xabi Urtzela, Oihana Elortza, Leire Kortabarria, Aintzane Irizar, Irati Agirreazalego **Oinarrizko diseinua** Golo Arana **Maketazioa** Alex Azkarate **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaya Mundifano, Natali Martínez, Zortzka Martín, Imanol Elortza, Itxaso Bereziar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzaran, Ane Bereziar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABAleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.155 ale • **Difusioa:** 18.629 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZALEAK



Eusko
Jaurlaritza



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala



Oñatiako
Udala



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala




Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

Karmelo Zubillaga borrokalarari

Juan Ramon Garai > Arrasate

Apirilaren 1ean, Bilbon, Euskal Herriaren erabaki eta adostasunaren eske egindako manifestazio erraldoian elkarrekin azkeneko aldiz egon ginen. Sumatzen zintudan osasunez nahiko jota zenbiltzala, baina, hala eta guztiz ere, zure bizitza osoan bezala, borrokaren lehengo ilaran: Euskal Herria askatu eta gorria lortzeko asmotan.

Union Cerrajeran lanean elkar ezagutu genuen. Ni, ordurako, borroka klandestinoan nenbilen eta etxeak behar genituen bilerak egiteko, liberatuak gordetzeko... 1967. urtea zen, une zailak implikatzeko. Bainan ez zenuen eduki inongo zalantzak zure etxeko ateak erakundeari zabaltze-ko.

Handik gutxira, Burgosko 70eko auzian sekula ez naiz ahaztuko nola elkartu ginen biltegian hiru lagun: Manga, zeu eta hirurok, eta lantegia gelditzeko Culebra bat hasi ginen egiten —lehendabizikoz— eta mila lagun grebara irteeta ere lortu genuen.

Gero, urteetan lantegiko Langile Komisioan makina bilera egin genuen fundizioan eta mendian. Zenbat greba politiko eta ekonomiko. Orduan, Arrasateko langile mugimenduaren aitzindaria Zerrajera izan zen, hor ibili ginen eta zeu beti prest borrokarako.

Gero, Union Cerrajeraren suntsipenarekin batera lanetik jubilatu zinen, baina ez borrokatik, azkeneko arnasa bota arte borrokalariren eredua izan zara.

Karmelo, zeu izan zara, zalantzak gabe, Bertolt Brecht-ek ezinbesteko jotzen zuen horietako pertsona bat.

esku dago! Zuen esku! Hori ere ahaztu?

A! Eta egunen baten lanpostu publikoen jabetzari buruz artikulu hori idazten baduzu, gogoratu hori ere erabaki politikoa izango dela, nahiz eta sindikatu guztiek kontra egon. Ez ahaztu!

Ikasle eskubideak borrokatu

Ane Mendikute (Ikasle Abertzaleak)
Bergara

Euskal ikasleok kolektibo indartsu eta borrokalar bat osatzen dugu, gure eskubideak zapalduak ditugun arren. Zapaldua dugu gure hizkuntza, euskara, eskolak euskaldunten ez duelako. Zapaldua dugu adierazpen askatasuna, biltzeko eskubidea edo greba eskubidea bezala.

Ukatu egiten dute gure herria, eta erdal curriculamak inposatzen dizkigute. Ukatu egiten digute ere subjektu izatea gure hezkuntza prozesuan, eta esan ditugu erabakiak hartu gure kabuz... Ukazioa eta zapalketen zerrenda luzea da, eta gure bederatzi eskubideak aurkitzen dira tamalez antzeko egoeran.

Pelikuletako indioak bezalakoak gara kasu askotan, gure herrian bertan zapalduak garelako. Gure hizkuntzaz trufatu izan dira, zigortu egin gaitutze euskaraz hitz egiteagatik, gure historia desitxuratu dago, jai egun arrotzak inposatu dizkigute...

Pelikuletako indioak bezalakoak gara kasu askotan, etengabe kriminalizatuak garelako ikasle eta abertzale izatea delitutzat jotzen dute hainbatek, eta hori guztia gure eskubideak defendatzeagatik! Zigortu egiten dute gure eskubideen alde egitea eta ikasleok mehatxatu, kaleratu, espaldentatu... egiten gaitutze.

Pelikuletako indioak bezalakoak gara, duintasunez borrokatzetan dugulako. Duintasunez altzatzen gara kolpatzen gaituztenean, duintasunez ekiten dugu aurrera bidean trabak jartzen dizkigutenean... Bainan badugu ezberdintasun bat pelikuletako indioekiko. Guk irabazi egingo dugu, hori da gure patua, eta gure eskubide guztiek errespetatzea lortuko dugu. Historia esan genuen bezala guk idatziko baitugu.

Bukatzeko, sindikatuek ez dutela langile guztien alde berdin egiten diozu, ez nator bat, eta gainera detailetxoa ekarriko dizut berri gogora: sindikatuek jubilatuen alde egin dezakete, gure beste, baina euren bizi baldintzak hobetzeko giltza politikarien

Phuntzionario batek Iñigo Iñurrategiri

Jon Lopez Santamaría
(Udal langilea eta LABeko delegatua)
Bergara

Lagunak garenez baneukan erantzuna aurrez aurre esaterik. Hala ere, idatziz esandakoari idatziz erantzutea aproposagoa iruditu zait.

Aurreko asteko GOIENKARIAN, Bergarako atalean, funtzionario zein sindikatuen inguruan idatzi zenuen zutabea topiko, orokortasun, eta batez ere ahazte askoz betetako artikula iruditu zait.

Ondo dakizu ezin direla administrazioak horrela nahastu, edota ezin direla administrazioko langile guztiek zaku berdinean sartu. Dena den, izan dituzun ahazteak gogora ekarri nahi ditudenez, ez naiz honetan luzatuko,

1923ko maiatzean jaio zen Trini Ruiz de Alegria mondragoe-tarra; 8 urte zituen II. Errepu-

blika ezarri zenean. Umea zen oraindik, baina ondo gogoan ditu urte haiet. Familia erre-

publikarra zen eta gerra heldu zenean Arrasate utzi zuen gura-soekin eta ahizparekin. Bilbon,

Santanderren, Frantzian eta Bartzelonan egon zen, etxera bueltatu zen arte, 16 urterekin.

Trini Ruiz de Alegria > Errepublika garaikoa

"Ikasi egin gura nuen, eta Errepublikako eskoletan erakutsi zidaten dakidana"

OIHANA ELORTZA > ARRASATE

Bi anaia eta osaba bat gerran hil zitzaitzien Triniri eta hirugarren anaia kontzentrazio-esparrua bizi izan zuen. Gertutik bizi izan zituen II. Errepublikako urteak eta ondo-ingoak. Trini Errepublika garaian egin zituzten escolekin gogoratzentz da ondo, eta etxetik lapurtu zizkioen liburuekin.

Nolakoak ziren eskola haiet?

Mojen ikastetxeen ikasten nuen nik aurretik. Ume asko ginen geletan pilatuta eta ez genuen ezer ikasten. *Mi mamá me quiere* eta antzerako esaldiak kopiatzen genituen goiz osoan, adibidez, baina ez genuen idazten ikasten, kopiatzen soilik. Errepublika etorri zenean, escola berriak egin behar zituztela eta ea nork joan gura zuen galdezka etorri ziren ikastetxera. Lagun batek eta biok baietz erantzun genien, etxeen inori ezer esan gabe. Nik ikasi egin gura nuen. Udaletxeko bigarren solairuko gela bat izan zen gure eskola, berria egin arte.

Non eraiki zuten eskola?

Erdiko kalean gora igo eta aurrean dagoen eraikin hura izan zen lehen eskola. Beheko solairuan hiru gela egin zituzten mutilendako eta goikoan beste hiru neskendako. Alcalá Zamora presidentea etorri zen lehen harria jartzera eta Indalecio Prieto inauguraziora. Liburuak, koadernoak, idazlumak eta arkatzak eman zizkigutten, doan, eta kultura orokorra erakusten zigareten. Katalina Gartzia Mitxelena izan zen nire irakaslea. Gero, Burgosera eraman zuten. Hil arte idatzi genizkion gutunak elkarri.

Ze harrera egin zioten Errepublikari herrian?

Orduan bost alderdi nagusi zeuden: nazionalistak, sozialistak, karlistak, Accion Vasca eta errepublikarrak. Komunista gutxi zeuden. Karlstekein denak konpontzen ziren gaizki. Haiek ez eriz, uste dut beste guztiak haritu zutela ondo, aldaketa ekarri zuen-eta.

Ze aldaketa?

Errepublikanoek Monte taberna dagoen lekuaren zuten egoitza, lehenengo solairuan, eta hantxe jartzen zituzten banderak. Gogoratzen dut, adibidez, maiatzaren 1ean ospakizun handiak egiten zituztela; izugarrizko manifestazioa egiten zuten, udal



Trini Ruiz de Alegriak ondo gordeta ditu Errepublikako argazkiak, liburuak eta prentsa artikuluak.

O.E.

musika banda eta guzti. Trinketeko etxeen, berriz, gaur Benetton denda dagoen tokian, izugarrizko jaia egiten zuten. Urte haientan nabarmena izan zen herriaren gorakada. Baina denbora laburra iraun zuen, aldaketak aztertzeko.

Askok utzi zenuten herria gerra piztu zenean?

Bai, eta beste asko hemen gelditu ziren.

Eta nola ikusi zenuen herria bueltan, gerraren ostean?

Goia eta behea, ez genuen besterik. Gure etxea izandakoan ere ez zegoen ezer. Gela bat haritu genuen eta hor hasi ginen berriro bizimodua ateratzen. Nik 16 urte zituen eta umezain hasi nintzen. Ahizpa, gazteagoa, eskolara joan zen eta orduan ikusi nuen ze gainbehera egin zuen eskolak. Aitari, berriz, ez zioten lanik ematen eta Eibarrera joan

MAIATZAK 1

"Musika bandak lagunduta egiten ziren langileen eguneko manifestazioak"

GERRAOSTEA

"Aitari ez zioten lanik eman gura 40 kilometroan eta Eibarren aurkitu zuen"

LEHEN ESKOLA

"Alcalá Zamorak jarri zuen lehen harria eta Indalecio Prieto etorri zen inauguraziora"

zen, han lagunak zituen-eta. Hantxe egiten zuen astea.

Gorrotorik ikusi, sentitu zenuen?

Bai, handia. Besteak beste, horregatik ez zioten eman gura lanik gure aitari 40 kilometroan.

Nire lagunak izandakoek ere mespretxuz begiratzen zituzten. Ordurako lantegietan lanean zebiltzan, 14 urterekin hasita, eta ni baino gehiago zirela uste eta esaten zituzten. Baina min handien nire etxeko liburuak zituela esan zidan lagunak eman zidan. Hark bazekien non gordeztzen nituen liburuak etxeen, eta gu kanpoan ginen bitartean, asko sartu ziren gurera zegoen guztia hartzera, etxe hustera. Lagun horrek nire liburuak zituela esan zidan eta ez zizkidala bueltatuko. Nik, ordea, lasai esan nion ez nituela nahi, berdinak erositzen Bartzelonan; erositzen, ez lapurtu.

Gordeta duzu oraindik Errepublikako bandera?

Ez. Senyera daukat, Kataluniako bandera. Oroitzapen asko eta onak ditut Bartzelonan egon ginen garaikoak. Bai Frantzian bai Bartzelonan lagun asko egin nituen eta argazki asko ditut ordukoak.

Anaia ere hantxe egon zen, ezta?

Bai. Gutunak idazten nizkion hemengo kontuak esanaz. Gero, haren lagunak Arrasatera etorri zirenean, eskerrak eman zizkidaten gutunengatik. Nik erantzun nien gutunak anaia idazten nizkiola, ez eurei, baina esan zidaten denen aurrean eta ozen irakurtzen zituela anaiaak gutunak, guztiondako. Eta hura eskertzeko, eskuko erloju bat ekarri zidaten.

Anaia ere izan zuen arazorik lana topatzeko?

Gerra denboran eskulan handia behar zuten hemengo lantegiek, eta Arabatik, adibidez, jende asko etorri zen lanera. Gero, ordea, handitzan joan ziren eta eskulan espezialduak behar zituzten. Gure anaia egokitzalea zen, ajustadorea. Izan zituen lan aukearak, baina hark aitaren ondora joatea erabaki zuen, aita zigortuta zegoelako oraindik. Gero, Musakolako Asam lantegitik deitu zioten lanera joateko. Hark erantzun zien aita eta biak joaten baziren baietz, baina bakarrik ez zela joango. Hango jabeak esan zion biak joateko, eta horrelaxe hasi ziren biak han lanean.

Eibarko kontuak heltzen zitzaitzkizuen?

Bai, bai. Errepublika garaian kontu asko heltzen zitzaitzkigun handik eta lagun asko genituen han, baita izeba eta haren familia ere.

Ospatuko duzue Errepublika eguna egubakoitzean, apirilaren 14an?

Urtero ospatzen dugu, modu batera edo bestera. Baskaltzeko zerbaite berezia prestatuta ospatzen dugu gehienetan, adibidez. Eta mahaien gaudela, urtero oihukatzen du "gora Errepublika!" baten batek.

Gainera, Errepublika eguna bakarrik ez, langileen eguna ere, maiatzaren 1a, urtero ospatu dugu orain arte. Eta hemendik aurrera ere ospatuko dugu, seguру egin.



Baster-Alde

Galartzia auzoa / ARETXABAleta
943 79 24 58 www.baster-alde.com

Eskaintza

- Menua eta karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkaleku

Astelehenetan itxita



Gure Ametsa

LEINTZ GATZAGA
943 71 49 52

Eskaintza

- Ezkontzak
- Jaunartzeak eta bataioak
- Hiru jangela
- Aparkaleku handia
- Umeendako jolaslekua

Astelehenetan itxita



Dragon Oriental

Araba etorbidea 3 (Super BM ondoan) / ARRASATE
943 79 85 33

Txinatar jatetxea

Eskaintza

- 140 lagunendako jangela
- Aparkaleku ezin hobea
- Janaria etxera eramatzen dizugu

Eguneko menua eta karta



Eguzkitza

Arane Erreka 30 / BERGARA
943 76 97 01

Eskaintza

- Eguneko menua
- Karta
- Plater konbinatuak
- Ogitarkeoak

Berezitasunak

- Behi txuleta
- Bakailaua

Martitzenetan itxita



Taberna-Berri

Durana 24-26 / ARETXABAleta
943 79 20 67 / 943 79 49 41

Eskaintza

- Menua
- Enpresa bazkariak
- Ezkontzak, jaunartzeak eta bataioak
- Bi jantoki: 80 eta 150 lagunendako

Berezitasunak

- Bakailao entsalada epela
- Oreina Oporto saltsan
- Arrain parrilada



Tartufo

San Juan auzoa / BERGARA
943 76 35 51

Eskaintza

- Familiako bazkariak
- Kintadak dantzaldiarekin
- Eguneko menua eta karta berezia
- Aparkaleku ezin hobea
- Bi jangela: 100 eta 55 pertsonendako

Berezitasunak

- Arrainen aukera zabala
- Oreina eta txuleta txingarretan erreta

Egunero zabalik 5:30etatik aurrera



Torrekuia

Ibargarai 37 / BERGARA
943 76 50 99

Eskaintza

- Eguneroko menua
- Karta
- Kintadak
- Bataio eta jaunartzeak

Berezitasunak

- Batik bat arraina
- Itsaskia
- Txuletak



Unzueta

Zabola auzoa / ARAMAIO
945 44 50 95

Eskaintza

- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

Berezitasunak


- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

Egunero zabalik



Herriak

Arrasate > 12-13 Bergara > 14-16 Aretxabaleta > 17-19 Eskoriatza > 20
Antzuola > 21 Elgeta > 22 Aramaio > 23



> ARRASATE
Emakumeen gaixotasunak aztertu dituzte Ekin elkartean > 12



> BERGARA
Masterrekako Bereterio jauregia berritu eta etxeak egingo dituzte > 14



> ARETXABALETA
Azoka Gernika plazara itzuliko da apirilaren 24tik aurrera > 18



> ESKORIATZA
Herriko bazterrak marraztu ditu liburu baten Iraia Artzamendik > 20

ARRASATE > GAZTETXEKO BATZARRAK 11+4 URTE

'4 pausoz 11 amets' lelopean, gazte batzarrak urtemuga ospatzen dihardu

AGAKO

Gazte batzarra ospitale zaharrean sortu zuten orain dela 15 urte

UARKAPEN

Azkeneko 4 urteotan Uarkapen dago gaztetxea, eta indarberritzen dabil

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Uarkapeko gaztetxeak 4 urte bete ditu. Horren aurretik ospitale zaharrean zegoenak 11 urte egin zituen. Horregatik, AGAKOK (gaztetxeko batzarra) *'4 pausoz 11 amets'* lelopean 15. urteurrena ospatzen dihardu. "Egia da zenbaketa horretan bi horien aurretik izan zen Gurea gaztetxea ez dugula aintzat hartu, baina harthan ez zegoen AGAKO izeneko batzarrik eta guk horren jarrai-pena egin dugu", azaldu ziguten.

MUSIKA, FILMAK ETA BESTE

Hilabete hasieratik erdialdera arte egin dituzte ekitaldi gehienak: Noizean Behin, Ehiztari, Kuraia eta Kloakao taldeen kontzertuak, film emanaldiak eta berbaldiak, besteak beste. Datozen egunetan, berriz, Euskal Herriko Gaztetxe Martxako ekitaldiekin bat egingo du batzarrak.

GAZTE ASKO BATZARREAN

Pozik daude azkenaldian gazte asko batzarrean esku hartzan hasi direlako, eta, hortaz, batzarra asko gaztetu delako. "Oficiatiko gaztetxeak itxi zutenean Arrasateko gazte asko joan ziren protesta ekitaldi-dietara, eta igarri egin dugu gaztetxeen alde sentsibilizatu direla". Horrez gain, gogoratu dute gaztetxeko atek zabalik daudela, eta tabernan edo beste zereginetan esku hartzeko aukera dagoela. "Taberna asteburuetan edo ekin-tzak daudenean bakarrik zabalten dugu; hoge ikoadrilatik gora txandakatzen dira lan egiteko".



GAZTE ASKO Azkenaldian AGAKO gazte batzarrera gazte berri asko batu dira. Edozeinendako atek zabalik daudela gogoratu dute.

IKER BARANDIARAN

Martxako egitaraua

Apirlak 27

18:00etan Oñatin, ekitaldi nagusia.

21:30ean Arrasatera autobusez. Manifestazioa Garibaitik, ongiortoria Seber Altuben eta afari-lintxa gaztetxean.

23:00etan kalejira Seber Altubetik eta ekitaldia gaztetxean.

Apirlak 28

10:00etan manifestazioa Bergarako azokara.

17:00etan serigrafia tailerra Munibe plazan.

18:00etan magia saioa eta umeendako ikuskizuna. Herriko musika taldeen kontzertuak tabernetan eta gauean ekitaldia gaztetxean.

GAZTETXE MARTXA

Gaztetxeen lekuoa ibarra zeharkatuko du hilabete bukaeran

Euskal Herriko gaztetxeen lekuoa apirilaren 21ean irtengo da Maulelik eta maiatzaren 7an helduko da Iruñera. Ibilbidean gure ibarrera sartuko da Oñati (27an) eta Arrasate zeharkatu ondoren, Bergarako irtengo da (28an). "Ibilbidea egiterakoan oso argi genuen Oñati geldiunea egin behar zuela, eta asmoa da egun horretan ibarreko lagun asko joatea. Hala ere, Arrasaten eta Bergaran ere hainbat ekintza antolatu ditugu".

Ibarreko hainbat ordezkarri azpiegitura eta komunikazio taldeetan lanean dabilta. Horrez gain,

Lokala Udalak gazteei utzitakoa den arren, gaztetxea autogestioan oinarritzen da. Hau da, gazteek euren kabuz kudeatzen dute eta argindarraren eta uraren gas-tuen kargu egiten dira.

Batzarkideen esanetan, gaztetxeak ez dira 80ko hamarkadako edo iraganeko kontuak. Gero eta zentzu handiagoa daukate, "gizarte gero eta homogeneoa delako eta kritikarik ez dagoelako. Bere kabuz pentsatzen duten gazte kritikoak ere egin badaude, eta haiei aukerak eman behar dizkiegu dituzten iniziatiiba eta ideiak aurrera eramateko".

IBARREKO BATZARRAK BATUTA

Azken lau urteotan egin dituzten ekintzetatik nabarmendu dute aisiaaldiarekin eta kontrainformazioarekin lotutako ehunka ekin-tza egin dituztela. Horrez gain,

azpimarratu dute ibarreko gazte batzarren artean lortu duten koordinazioa eta harremana. "Orain dela urte batzuk ibarreko topaketak antolatu genituen eta emaitza oso onak eman zituen. Are gehiago, gure arteko harremanak fin-koak izaten jarraitzen dute".

Horrekin batera, 11+2 urteurrenen gaineko oroitzapen oso onak dituzte. "Urte hartan Mareak diskoa aurkeztu zuen gaztetxean, Japoniako Doberman tal-deak Betagarrirekin batera emanaldia egin zuen... Lorpen handiak izan ziren".

Hala ere, kontzertuez gain, berbaldi, erakusketa, antzezlan eta beste hainbat ekitaldi egin dituzte, eta horretan jarraitzeko asmoa dute. Are gehiago, baikor dira gazte berri asko lanean burubarri hasi direlako, eta haiek lekuoa hartu dutelako.

zerbitzuak**GUARDIAKO FARMAZIAK****ARRASATE**

Eguena, 13	Corcueras	Maisu Aranbarri	943 79 22 26
Egubakoitz, 14	Español	Araba etorbidea	943 79 18 65
Zapatua, 15	Zabola	Zarugalde 42-44	943 77 16 30
Domeka, 16	Azkoaga	Ferrerias 1	943 79 15 15
Astelehena, 17	Corcueras	Maisu Aranbarri	943 79 22 26
Martitzena, 18	Zabola	Zarugalde 42-44	943 77 16 30
Eguaztena, 19	Azkoaga	Ferrerias 1	943 79 15 15

BERGARA

Eguena, 13	Zabala	Barrenkalea 25	943 76 16 87
Egubakoitz, 14	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Zapatua, 15	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Domeka, 16	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Astelehena, 17	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Martitzena, 18	Camacho	Oixorondo 4	943 76 11 74
Eguaztena, 19	Zabala	Barrenkalea 25	943 76 16 87

ONATI

Eguena, 13	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Egubakoitz, 14	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Zapatua, 15	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Domeka, 16	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Astelehena, 17	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Martitzena, 18	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Eguaztena, 19	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22

ARETXABAleta

Eguena, 13	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Egubakoitz, 14	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Zapatua, 15	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Domeka, 16	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Astelehena, 17	Iturrealde	Belerrieta auzoa 1	943 08 11 43
Martitzena, 18	Iturrealde	Belerrieta auzoa 1	943 08 11 43
Eguaztena, 19	Iturrealde	Belerrieta auzoa 1	943 08 11 43

TELEFONO JAKINGARRIAK**((112))
SOS DEIAK****OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Oskidetza (Larraldia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 17 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhiltzialeak.....	943 78 28 00
Ertzainaz.....	943 53 47 20
Osasun etxeak.....	
Arrasateko ospitala.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramai.....	945 44 53 40
Aretxabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 78 90 27
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Onati.....	943 03 54 30
Udaltaiznagoak.....	
Antzuola.....	943 76 62 46
Arrasate.....	943 79 14 39
Aretxabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Onati.....	943 78 04 11

GARRAIoAK

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak.....	
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramai.....	945 44 50 33
Aretxabaleta.....	943 77 12 64
Bergara.....	943 79 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Onati.....	943 78 03 65

DEBAGOIENA

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritzan garbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakindegia alternatiboak.....	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	945 76 44 42
Onati.....	943 78 36 67

BERGARA

San Lorenzo/San Juan dík irteerak.....	07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40,
12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00,	
19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorenzo (Soraluze), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaietako (Ekonoma-toan) eta Zabala jatetxeak.	
Eroskitik Gorostizara (1 Línea).....	08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30,
15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.	

IBILBIDEA: Gorostiza, Erguín B., Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Arribalzaga, Biterri, Legaria, Musakola eta Eroski.	
Eroskitik Gorostizara (2 Línea).....	08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35,
16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.	
IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obregón, Oberenberka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguín A eta Gorostiza.	
Gorostizatik Eroskira (1 Línea).....	08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30,
15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.	
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguín B., Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.	

Eroskitik Gorostizara (2 Línea).....	08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05,
15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05, 21:05.	
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legaria, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Uribarri, Erguín A eta Gorostiza.	
Gorostizatik Eroskira (2 Línea).....	08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30,
15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.	

IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obregón, Oberenberka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguín A eta Gorostiza.	
Eroskitik Gorostizara (1 Línea).....	08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30,
15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.	
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguín B., Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.	

URBANOAK**ARRASATE**

Gorostizatik Eroskira (2 Línea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00,

kale inkesta

Zure iritziz, zergatik irakurtzen dugu horren gutxi?



Xabier Moya
Ikaslea
Bergara



Maribi Iturriaga
Etxekoandrea
Bergara



Amaia Altube
Langilea
Arrasate



Iñigo San Miguel
Langilea
Arrasate



Iban Bengoa
Erretiratua
Arrasate

Ez dut irakurtzen, ez dut denborarik izaten-eta. Egunkariak, berriz, Internet bidez irakurtzen ditut. Irakurri dudan azken liburu Dan Brownen *El Código Da Vinci* da, lagun batek gomendatu zidan.

Udan gehiago irakurtzen dut, baina ez dut ohiturrik eta nahiko gutxi irakurtzen dut, egia esan. Liburu arinak eta entretenigarriak gustatzen zaizkit, erraz irakurtzeko modukoak.

Ez dakit zergatik, uste dut dela beste aukera batzuk errazago ditugulako: telebista ikusi... Irakurtzeak ahalegina eskatzen du. Eta nik neuk, gainera, sekula ez dudanez ohiturrik izan... zailagoa da.

Lanean nahiko letra irakurtzen ditut, azkenean nekatuta geratzen naiz eta nahiko dut. Egia da, baita ere, lasaitzeko den gauza bat dela irakurtzea, baina nik neuk ez dut erabiltzen.

Telebistarekin eta beste-lako ikus-entzunezkoezin utzi dut aparte samar. Errazagoak dira horiek. Begiekin ikusten dira. Nik irakurri egiten dut, baina oso gutxi, egunero egunkaria bakarrik.

txaloak eta txistuak



Ez euskaraz ezta galegoz ere

Horixe da Arrasateko irakurle batek kritikatu gura izan duena: joan den asteburuan Arrasaten ospatu zuten festa galegoa iragartzeko kartel guztiak espanolez ipini zituztela: "Arrasate kartelez josi dute eta bat bera ere ez dago ez euskaraz eta ezta galegoz ere".



bertako berbak

Juan Martín Elexpuru

"Puxketa"

1. Zatia.
- Emaiozu ogi puxketa bat.
2. Ederra, bikaina.
- Zelako mutill puxketia dagola Karlos.



Marrazkia > Jon Iraegi

asteko datua

23

Oinezkoen 23 pasabide hobeto argiztatuko ditu Udalak Arrasaten. Gidariekin oinezkoak ondo ikus ditzaten egindo du hori 17.221,46 euro ordainduta. Behar handien duten pasabideak argiztatuko ditu. Guztira, halako 50 daude.

Horrez gain, Oktubre Taldea lehen, eta orain Intxorta 1937 kultura taldea Espaniako Estatuko historia beltzean Euskal Herrian egindako sarraski eta injustiziak ezagutzera ematen dabil liburuen, eta bestelakoek bitartez. Goraipatzeko da horiek guztiak urturrenetatik haratago egiten duten lana.

5 galdera...

Nerea Arana

Ibarraundi Museoa (Eskoriatza)
Bergara

1. Badatoz oporrak; zer eskauntzen du Ibarraundi Museoak?

Museoa zabalik egongo da, baina gabiltza aldaketak egiten eta horren ondorioz zerbitzu batzuk ezin ditugu eskaini une honetan. Dena dela, egongo da zabalik jaiegunetan, egunero, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Dugu, hasteko, Eskoriatza eta museoaren gaineko bideo bat, eta hortik aurrera egin daiteke bisita. Iku daiteke etnografiari buruzko arlo bat eta historia edo histioriaurreari buruzko beste bat.

2. Bergarakoa izan, Arrasaten bizi eta Eskoriatzanolan; ibarra ondo ezagutzen duen batek zer gomendatuko lioke bisitariari?

Eskoriatzan gomendatuko nioke Atxorrotx inguruan bueltatxo bat ematea; eta bestela, orain Arantzazuko turismo bulegoa zabaldu dute eta han ere badiatzte berritisunak-eta ikusteko; esaterako, bisita gidatuak eskaintzen dituzte, azpiegitura berriak ere badira... Eskualdekoendako izan daiteke zerbaite berria.

3. Datozenek zer nahiago dute, turismo kulturala ala bestelakoa?

Noizean behin etortzen dira ibilbideak egitera. Mankomunitateak ateratako mendi-ibilbideak egiteko gidak ditugu, eta eskatu egiten dituzte, baina orokorrean turismo kulturala egitera dator.

4. Zure ustez, zeintzuk dira opor onenak? Zer nahiago, aisialdia ala kultura?

Onenak dira lanik egin gabe gustura zabiltzanean, zuri gustatzen zaizuna egiten zabiltzanean. Aisialdia nahiago dut nik; esaterako, orain Asturiasera goaz. Han bisitatuko dugu Indianoen Artixioa eta gero asmoa dugu kanoatan ibiltzeko. Denetik zerbaite.

5. Zer aurreikusten duzue oporretarako? Nondik datozi gehienetan?

Talderen batek deitu du txanda hartzeko. Gehienetan eskualdetik etortzen dira: eskola, euskaltegi eta elkarrebatik. Unibertsitatetik ere etortzen dira.



Leire Aperribai eta Maite Uribarren > Ekin Emakumeak

"Emakumeok exijitzen diogu asko gure buruari"

UBANE MADERA > ARRASATE
Emakumeek gizonezkoek ez dituzten gaixotasunak dituzte. Gaixotasunok aztertu dituzte Ekin Emakumeak elkartean, ibarreko 15 profesionalekin. Lan hori Maite Uribarrenen egin du, karrera amaierako proiektu moduan. Informazio horrekin, Ekin elkarrekin osasun plana egin gura du, gida eta datu-basea.

Ze gaixotasun dugu gizonezkoek ez dutena? Zeintzuk dira ohi-koenak?

Uste dugu pertsona guztiek ditugula gaixotasun berak, baina ez da horrela. Badaude gaixotasun batzuk eragiten dietela gehiago emakumeei gizonezkoei baino. Esaterako, bularreko minbizia, osteoporosia, fibromialgia, menopausia... Horrez gainera, buruko eta laneko osasunak ere aztertu ditugu. Lanean, adibidez, orokorrean emakumeek egiten dituzte sorkuntza txikiko lanak, monotonoak. Horrek eragina dauka osasunean, atsekabea sortzen du, larritasuna, estresa... Horrez gainera, emakume askok dute lan-jardunaldi bikotza: kalean eta etxeen.

Gehien izaten diren gaixotasunak, berriz, dira: estresa eta depresioa, eta anorexia eta bulimia ere ugari samarrak dira.

Gaixotasunok izaera psikologiko handia dute; zergatik?

Gure gizartea erakusten digun eredua da: emakume langilea, zortzi ordu egiten ditu lan etxetik kanpo, gero etxearen beste ordu mordoa egiten ditu lanean, emanen dio astia etxeko gauza guztia egiteko, umeak zaintzeko (gainera, izan behar dugu ama onak), gurasoak zaintzeko (izan behar dugu alaba onak), dauka denbora irakurtzeko, zinemara joateko, itxura ere zaintzen du... Superemakumea da! Presio horren eraginez, uste dugu emakumeok hori guztia egin beharra dugula, eta exijitzen diogu asko gure buruari.

Emakumeek gaixotasun bereziak edukitzte hori berria da?



Leire Aperribai eta Maite Uribarren, Ekin emakumeak elkartearen kantoan. U.M.

Beti egon dira, baina gerta-zen dena da emakumeen osasuna bigarren mailan egon dela beti eta gaixotasun horiei ez zaie-la eman importantsia handirik. Esaterako, menopausia eta hile-

rokoia ikusi izan dira zerbait txa-rra balira bezala.


Gaixotasun horiei aurre egiteko gomendio batzuk...

Horrelakoan ez jausteko egin behar dena da zure buruaren azterketa sakona, ezagutu zeure burua, jakin zein zaren eta zein ez zaren eta nolabait autoestimua indartu. Horrez gainera, ikasi behar dugu ulertzen zergatik erortzen garen halako gaixotasunetan. Eta halako gaixotasun bat izanez gero, profesionalengana jo beharra dago, duda barik, eta baita ere lehen esandako hausnarketa egin.

"Osasun-plana euskaraz egin gura dugu, gabezia handia dagoelako"

"Osasun-plana lantzeko eta datu-basea sortzeko dirulaguntza behar dugu"

Garagardo ona, giro hobea



Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

ZERBITZUAK > ZAILTASUNAK DITUZTENENDAKO PARKEAK

Umeendako parkeak egokitzea behar direla uste du EBk

Zailtasunak dituzten umeendako erabilgarriak diren parkeak sortzeko proposatu dio Udaleri

U.M. > ARRASATE
Ezker Batuak proposatzen duen ez da parke berriak sortzea, baizik eta "erabilgarri egitea ekipamendu orokorrak herritar guztiek erabili ahal izateko". EBko bozeramaile Joseba Ugal-

dek gaineratutakoaren arabera, "ez dira gune bereziak zailtasunak dituzten umeendako, baizik eta ume guztiek gozatzeko gune integratzaileak dira".

BARTZELONAKOA IRUDI

EBren proposamena dago inspiratuta Bartzelonako Udalak abiarazitako egitasmo aitzindari batean. Parke horrek, bestek, izango lituzke: gurpildun aulkia duten edo gizentasun arazoak duten umeek erabiltzeko moduko txirrista eta itsuen-dako zerbitzuak, bestek beste.

ZERBITZUAK > LANA

Lana bilatzen laguntzeko zerbitzua abian liburutegian

Lan bila
dabiltzanendako
'Baliabideen gida'
argitaratu du Udal
Liburutegiak

U.M. > ARRASATE
Konturatu ziren lan bila zebiltzanzko askok liburutegira jotzen zutela informazio bila. Hala, hasi ziren egunkarien asteburuetako

gehigarriak batzen. Eta poliki-poliki gauza berriak gehitzen joan dira. Esaterako, lana eskaintzen duten erakundeen zerrendak (Langai, HAEE...). Hori guztia liburutegiaren lehenengo solairuan kontsulta daiteke, gune berezia prestatu dute-eta horretarako. Horrez gainera, informatika gelan lana bilatzen laguntzeko Sifac programa eskuratutu dute. Eta orain, *Baliabideen gida* argitaratu dute, enplegu zerbitzuaren laguntzarekin.



BALIABIDEEN GIDA Gehigarriekin batera ipini dute; doan har daiteke.

U.M.

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztiako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 / 675 70 57 35 ARRASATE



ESKU-HARTZE HANDIA Lagun askok esku hartzen dute urtero. AED ELKARTEA

KULTURA > 19. ARRASATE LEHIAKETAK

Hilaren 27an da Arrasate Lehiaketen sari banaketa

145 lan aurkeztu dituzte, eta epaimahaiak azpimarratu du ipuiniek maila handia dutela

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Arrasate Lehiaketen epaimahaiak dagoeneko aukeratu du edizio honetako finalisten zerrenda. 19. edizioan 145 lan aurkeztu dituzte. Horietatik 22 komikiak dira, 21 bertso paperak, 35 poesiak eta 67 ipuinak, hain zuzen ere.

Epaimahaiak hilaren 27ra arte ez du ezagutzen emango zeintzuk izan diren sail bakoi-ko irabazleak. Interesatuek egun horretara arte itxaron beharko dute. 18:00etarako egin dute hitzordua, Monterron kultura etxearen.

SARIDUNEN ZERRENDA

Honako hauek dira saridunen zerrendan daudenak: Maite Carrasco, Andrea Vazquez, Maite Sanchez, Iñigo Merino, Amaia Arana eta Miren Zubizarreta, Jon Urkizu, Garazi Barberan, Xabi Igoa, Amaia Sanchez, Julen Beitia, Maddi Iregi eta Elene Berezibar, Lide Areñata, Naiara Zubala, Hodei Balantzategi, Urtzi Armenda-

riz, Ander Elkoro, Maria Hernandez, Xabi Uriarte, Ainhoa Elortza, Amaia Kortabarria, Oihane Urtzelai, Maddi Bengoechea eta Maria Amutxastegi, hain zuzen ere.

IAZ BAINO LAN GEHIAGO

Iazko edizioa salbuespenezkoa izan zen, 95 lan bakarrik aurkeztu zituztelako. Aurreko urteetan, berriz, 140ren bueltan ibili dira urtero.

Horrez gain, epaimahaiak nabarmendu du auren ipuin-en alorrean oso maila polita egon dela, aurreko urteetan baino hobea.

'ERLOJU LEHORRAK' IKUSKIZUNA Sari banaketako ekitaldiaren aurretik Mikelazulo kultura elkarteko lagunek *Erloju lehorra* ikuskizuna egingo dute. Poesia emanaldia da, eta baxu jotzaile batek eta zuzenean aritu den margolari batek esku hartuko dute. Gogoeta eta umorea uztartzen ditu ikuskizunak.

BITTORI ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuleta

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

EUSKARA > EMUN KOOPERATIBAREN BATZAR OROKORRA

Etengabeko hazkundean jarraitzen du Emunek

1997an sortu zuten, hiru langilerekin; hamar urte eta gero, 70 langile ditu Arrasateko kooperatibak

UBANE MADERA > ARRASATE

Joan den barikuan egin zuen Emun kooperatibak urteko batzarra. Aurten hamargarren ekitaldia da. Eta aurrekoetan moduan, aurten ere hazkundea da enpre-sa horren ezaugarririk nabarmenena. Hazkundea produktuetan (iazkoarekin konparatuta %15,81 igo dira salmentak; Araban, esaterako, %8raino iritsi

dira); eta hazkundea lantaldean (sei pertsona inguru gehiago; hortaz, orain 70 langile ditu).

AURTEN LEGBILTZARRERA

Ekintzei begira, batzuk aipatze-aren, 2005ean, ULMako negozio gehiagotan hasi dira euskara plana lantzen; Fagorren, negozio guztieta zabaldu dira; Elgetan, Recide enpresan sartu dira eta

Bergarako Udalarekin lankide-tzan dabil Emun hainbat empre-satan lanean hasteko.

Ibarretik kanpo, berriz, Emun geroago eta ezagunagoa da. Aurten, esaterako, Legebiltzarrean hasiko da euskara plana lantzen.

GARAPEN IKUSGARRIA

1997an sortu zuten Emun, hiru lagunen artean. Hasi ere hiru proiekturekin hasi ziren. Gaur egun, berriz, Arrasaten ez ezik Andoainen eta Atarrabian (Nafarroa) ere baditu ordezkaritzak.



BATZAR OROKORRA MUren Eskoriatzako HUHEZIKO fakultatean egin dute aurtengo batzarra, joan den barikuan.

EMUN

 Zenbaki Ahokulariak

 EMPRESA CERTIFICADA ISO 9001:2000

• Kontabilitatea • Lana
• Fiskalitatea • Juridikoa

Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABAleta. Tel.: 943 71 21 12 / Faxa: 943 71 22 68
www.zenbaki.es / zenbaki@zenbaki.es



Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE



Pando
Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Ibilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Seinaleak
- Lonak
- Erließedun hizkiak



JAUREGIA Masterreka kaleko 30. zenbakian dago Berastegi jauregia.

O.E.

ERAIKUNTA > XXI. MENDEKO ETXEBIZITZAK XVII. MENDEKO ERAIKINEAN

Hamar etxebizitza egingo dituzte Bereterio jauregian

Fatxada mantendu egingo dute eta XVII. eta XVIII. mendeetako ezaugarriak nabarmenduko dituzte

Hamar etxebizitza egingo dituzte Masterreka 30. zenbakiko eraikinean, Bereterio jauregian. Eraikina bera ez dute tokiz mugituko. Kanpoaldea, fatxada,

mantendu egingo dute, eraberri- tu egingo dute eta barruan egin- go dituzte lanak. Eskuinaldean zazpi garaje egingo dituzte eta bai- ta berdegune bat ere, hamar bizi- lagunendako. Aste Santu ostean hasiko dituzte lanak. Urte eta erdi inguru iraungo dute eta zirkula- zioan arazorik ez dutela sortuko esan dute arduradunek.

XVII. MENDEKO LEIHOAK
Bereterio jauregiak XVII. eta XVIII. mendeetako ezaugarriak

ditu eta horiek guztiak mantendu egingo dituztela esan digu Jesus Laskurain Perez, lanak egingo dituen Contratas y Obras Karubi enpresako teknikariak. "Eraikin horrek dituen beneta- ko tarteak, hutsuneak, errespetu egingo ditugu eta XVII. men- deko leihoak ere mantendu egin- go ditugu", gaineratu du.


Une honetan bi familia bizi dira eraikinean, baina lanak hasi aurrerik utzi beharko dute bizilekuak.

> MENDEKOSTE JAIAK 2006

Mendekoste jaietan txosna jartzeko baimena maiatzaren 9a baino lehen eskatu behar dute

Irabazi asmorik ez duen herriko edozein taldek eska dezake bai- mena txosna jartzeko jaietan. Eta epea zabalik dago; maiatzaren 9a baino lehen egin behar da eskaera, udaletxean.

Bestalde, Mendekoste jaietako egitaraua gorpuzten ari da poli- ki-poliki. Dagoeneko erabaki dute zein musika taldek joko duten txosna-gunean. Koadrilen eguna ere astelehena izango da aurten eta bazkaria eta jolasak, behintzat, antolatu dituzte.



ENEKO AZKARATE

Estugunea zabaltzeko bota dute

Zubieta kalean zegoen egurra lehortzeko eraikina botatzen ibili dira egunotan. Aurreko astean, bere pareko eraikina bota zuten, Zubieta 3. Infernukoako estugunea noranzko bikoitzeko bihurtu nahi dute horrela. Sestra enpresak egingo ditu lan horiek. Egurra lehortzeko eraikina zegoen tokian etxebizitzak ere egin nahi dituzte.

Sugoi
ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

**TELEIXA
BILTEGIAK**
Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak
Moketa eta sintasola
Iztuku esponjatura

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

**JAUJA
KIROLAK**
Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industriala

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

Larramaga
BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
San Pedro, 9. Teléfono 761051
R.S.I. 209374 SS
BERGARA

**Aldoka
Maldoka**
TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

Dixula
**BOKATAK
DAUZKAGU**

Barrenkalea 32
BERGARA
Tel.: 943 76 44 95



ARANZADI IKASTOLA BATXILERGORAKO AURREMatrikulazioa

aprilaren 24tik maiatzaren 5era



ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAREN BATXILERGOA Osasun eta Natur Zientziak Zientifiko-teknikoa GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIETAKO BATXILERGOA

Kultura eta aisialdirako jarduera osagarriak

- Batxilergo ondoko ikasketa guztiarako prestakuntza
- Konfiantzan oinarritutako harremanak
- Ikastolaren kudeaketan ikasleen parte-hartzea



Euskaraz bizi izaten aitzindari

- Emaitza akademikoak gure kalitatearen adierazle



ARANZADI
IKASTOLA



HERRI ONURAKO
IRAKASKUNTZA KOOPERATIBA



PARTAIDE
Ikastolak



OLINPIADAK Sei eta zortzi lagun bitarteko taldeak egingo dituzte gaztetxoek.

GOIENKARIA

AISIA > IRUDIMEN ETA ABILEZIA OLINPIADAK

Gaztetxoen arteko olinpiadak prestatu ditu Jardunek

Sormena lantzko proba da 2006ko berrikuntza; irudimena erakutsi beharko dute gaztetxoek

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Gaztetxoen arteko VI. olinpiadak prestatu ditu Jardunek. Lau garren, bosgarren eta seigarren mailak egiten ari diren ikasleen-dako olinpiadak dira.

IRUDIMEN ETA ABILEZIA PROBAK

Aurtengo olinpiadetarako pres-tatu dituzten joko-en artean, sor-menarena da berrikuntza. Sei

eta zortzi lagun bitarteko taldeak egingo dituzte ikasleek, talde bakoitzari material jakin bat emango diote, egurra edo kartoi meheia, adibidez, eta gaztetxoek euren irudimena erabili beharko dute material horrekin itxura duen zerbaitegiteko. Bestalde, boloetan, tokan eta igel joko-an, esaterako, euren abilezia erakutsi beharko dute. Igerile-

kuan ere lehiatuko dira, ziurrenik, eta orientazio probak eta herri kirolak ere egingo dituzte.

Zapatu arratsaldeetan egingo dituzte olinpiadak. Eta, noski, sariak ere egongo dira. Hainbat opari banatuko dituzte parte-har-tzaileen artean eta irabazleak Gamarra joango dira egun-pasa. Maiatzaren 13tik ekainaren 17ra bitartean egingo dituzte, baina aurretik eman behar da ize-na, maiatzaren 5a baino lehen. Eskutitzak bidaliko ditu Jardunek, umeak animatzeko.

ARGAZKILARITZA > LEHIAKETA ETA IKASTAROA

22. Bergara Hiria argazki lehiaketa deitu du Udalak

Pol-Pol elkarteak argazki analogiko eta digitalaren ikastaroa antolatu du

tako bat, herriko onenari. Lehiaketara aurkeztutako argazkien artean, batzuk auke-ratuko dituzte eta erakusketa jarriko dute Aroztegi aretoan ekain aldean.

ARGAZKILARITZA IKASTAROA

Pol-Pol taldeak, bestalde, argazki analogikoen eta digitalen ikastaroa antolatu du. Maia-tzaren 8tik 31ra izango da eta 4a baino lehen eman behar da izena. Langileek 45 euro ordainduko dute eta ikasle eta langa-beek, 25. Partaide bakoitzak bere argazki kamera eraman behar du, praktikak egiteko.

> LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Apirilaren 22an eta 24an plazako arkueetan zabalduko ditu atea Udal Liburutegiak

Liburuaren Nazioarteko Eguna da apirilaren 23an, eta hori ospatzeko, plazako arkueetara eramango dute Udal Liburutegia hilaren 22an eta 24an. Errotalde jauregian dagoen liburutegiko hain-bat liburu jarriko dituzte plazako postuetan, jendeak ikusteko eta baita maileguan hartzeko ere. Ordutegia liburutegiko bera izango du, 09:00etatik 21:00etara, alegia.

> KIROLA

Kirol taldeek atseden hartuko dute Aste Santuan, eta oporren ostean dituzte hurrengo partiduak

Herriko kirol taldeek atseden hartuko dute Aste Santuan, eta hurrengo partiduak oporren ostean jokatuko dituzte. Horrela, eskubaloian eta saskibaloian jokatzen duten taldeek, adibidez, apirilaren 23an jokatuko dituzte hurrengo partiduak. Futbolean, berriz, erregional mailako taldeak apirilaren 30ean izango du hurrengo norgehiagoka. Opor luzeagoak dituzte haiak.

ARRI
Industri hornidura
Latigilloak

Telleria 2, BERGARA
Tel.: 943 76 19 04
Fax: 943 76 43 03
Sakelakoa: 656 78 64 84

ARANE
KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903



GAZTELU

BURDINKI DENDA

Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

Mujika
gozotegia


Bizkotxoak
Erreilenaoak
Tostoiak
Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

etxalar

kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
BERGARA
943 76 50 68

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13


ORMAZABAL
FISIOTERAPIA ZENTROA

Bizkarreko mina • Bihurrituak
Tendinitisa • Masajeak • Erreuma
Osteopatia
Errehabilitazioa

Telleria 6 bis, 11 bulegoa
Labegaraieta ind. BERGARA
Tel.: 943 76 53 35 / 626 90 06 08
ormazabalfisioterapia@yahoo.es

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen □ bada
giro!

AKEITA
Taberna

Pintxoak eta ogitartekoak

Santa Ana 23
Tel.: 943 71 50 94
ESKORIATZA

IOSU
taberna
harategia

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak
Mitarte 1
Tel.: 943 77 03 08



Zatoz gure musikaz gozatzera

Mitarte 9 ARETXABAleta Tel: 943 79 92 01



Gustuko musika
Mitarte 16. ARETXABAleta Tel.: 943 79 32 34



Mitarte z/g • ARETXABAleta
Tel.: 943 79 88 60



EXPRESS TABERNA

Santa kurtz 16 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 23 43



Durana 26 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 67



OTZETA JATETXEA




Aranburuzabala 7 ESKORIATZA Tel.: 943 71 31 67



BASABE
Menuak eta afariak

Basabe poligonoa ARETXABAleta 943 79 91 84



DORLETA TABERNA
Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15 ARETXABAleta



HIRUSTA JATETXEA

Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57



Herriko plaza Aretxabaleta Tel.: 943 79 09 33



Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64



ZARAIA
taberna
Goizeko 06:00etik irekita
Araba Ibilbidea 20 • ARETXABAleta
Tel.: 943 79 88 95



Matikua jatetxea

Azatza auzoa ARETXABAleta 943 79 16 68



ENPLEGU ZENTROA Nagore Alberdi arduradunak eta Amaia Arantzabal institutuko zuzendariak aurkeztu zuten.

POLITIKA > EZKER BATUAREN ERABAKIA

Ezker Batuak Udal gobernua utzi du

Xabier Sarasuaren kanporatzea atzera botatzeko eskatu dio alkateari Ezker Batuak, baina ezetza jaso du

Aretxabaletako zinegotzi Jaime Muxika- azalpenak eska tzea alkateari. "Ez dakigu zer egin duen edo zer ez Sarasuak, baina uste dugu lekuz kanko dagoela Gobernu batzordetik bidaltzeko erabakia", zioen Ander Rodriguezek, Ezker Batuko Arrasateko zinegotziak. Gainera, Ezker Batuak uste du erabakia eurekin eztabaidatu behar zela, eurak ere Gobernu batzordeko kide izan direlako.

Ezker Batuak jarrera aldatzeko eskatu dio alkateari eta publikoki adieraz dezala. Ezetza jaso du Arritxu Oliden aldetik, hortaz, Aretxabaletako Udal Gobernu batzordetik alde egitea erabaki du. Halako jarrerak lehenbailehen moztu behar direla esan du, ez diotela inori onik egiten.

M.A. > ARETXABAleta
Atzo, martitzena, berba egin zuen Debagoieneko Ezker Batuak Arritxu Oliden alkatearekin. Aralarko Xabier Sarasuaren kanporatzea argitzeko eskatu gura zion, eta hartutako erabakia atzera botatzeko.

ERABAKIA LEKUZ KANPO
Astelenean egindako batzarrrean erabaki zuen Debagoieneko Ezker Batuak -tartean

INSTITUTUA > EUSKAL ORIENTAZIO ZERBITZUKO ENPLEGU ZENTROA

Abian da Aretxabaletako institutuan jarri berri duten Enplegu Zentroa

Ordenagailuak Interneten ibiltzeko, egunkariak eta aldizkari espezializatuak daude zentroan, eta aditu baten aholkuak jasoko dituzte langabeek

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta

Martxoaren 15ean jarri zuten abian Aretxabaletako lanbide heziketarako institutuan Euskal Orientazio Zerbitzuko Enplegu Zentroa. Atzo, martitzena, aurkezpen ekitaldia egin zuten Debagoieneko udaletako hainbat teknikarien aurrean.

LANA TOPATZEKO GERTATU

Lan bila dabiltsan laguneak aholkuak eman eta laguntzea helburu duen zentroa dago abian Are-

culum egokiak eta aurkezpen gutunak egin, test psikoteknikoak gertatu edo lan elkarritzak zela egin erakusten diegu".

EDONORENDAKO ZERBITZUA

Lan bila dabiltsanak edo lanpostu hobea aurkitu gura dutenak hurrera daitezke Enplegu Zentroa: "Batzuk institutuko ikasleak dira, beste batzuk Lanbideren bulegotik datozenak, baina edonork etor daiteke", dio Nagorek.

2003an jarri zuten abian institutuan Enplegurako Orientazio Zerbitzua, Lanbide, eta hiru urtean ia 1.000 lagun pasatu dira. Orain, Enplegu Zentroarekin orientazio zabalgaoa eman gura diente Debagoieneko langabeei.

> ERLIJIOA

Isurieta gurutze-bidea eta Pazko gaubeila egingo dituzte Aste Santuko ospakizunen artean

Egun garrantzitsuak datoz kristauendako, eta Aste Santurako geratzeko aitortzekin hasiko dute Eguren Santua Aretxabaletako parrokiian; 11:00etatik 12:00etara egingo dituzte. Arratsaldean, osteria, Jaunaren azken afariko eukaristia ospatuko dute, 18:00etan komentuan eta 19:00etan parrokiian.

Egubakoitz Santuan gurutze-bidea egingo dute Isurieta 11:00etan irienda; Jaunaren nekaldiko ospakizuna, osteria, 16:00etan izango da komentuan eta 17:30ean parrokiian. Zapatain Pazko gaubeila ospatuko dute, bai komentuan, bai parrokiian; biak 21:00etan. Domekako eukaristiak ohiko orduetan izango dira, 09:00etan komentuan, eta meza nagusia parrokiian, 12:00etan.

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAleta

propaganda
kartelak
kartak
jai egitarauak
pegatinak
liburuak
etiketak
txartelak
errekordatorioak
gonbidapenak
errebistik
inprimakiak



1979 urtetik
zure zerbitzura

EGUZKiGRAF
inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4

20550 Aretxabaleta

Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941

E-mail: info@eguzkigraf.com



HERRIA EZAGUTU Lana udalerria hobeto ezagutzeko baliatu du. Argazkian, egilea Jose Arana kalean.

PENTSIODUNAK > BAINUETXE PROGRAMA**Maiatzaren 16ra arteko epea bainuetxera joateko**

Bainuetxeetan 12 eguneko egonaldiak egingo dituzte irailetik abendura bitartean

IRATI AGIRREAZALDEGI > ESKORIATZA
Udaleko Gizarte Zerbitzuatik bideratu dute pentsiodunenako bainuetxe programa. Interesatuek maiatzaren 16ra bitartean eman ahal izango dute izena udaletxeen.

Programa horren bidez, sendagileak gomendatuta bai-

nuetxeetan eskaintzen dituzten tratamendua behar dituzten pentsiodunek egonaldia prezio merkeagoan egiteko aukera izango dute.

Programan parte hartzen dutenek irailetik abendura bitartean 12 eguneko egonaldiak egingo dituzte. Egun horietan tratamendu termalak jasoko dituzte, betiere sendagilearen zaintzaean.

IMRSERSO

Bestalde, datorren hilaren erdi inguruan zabalduko dute adinekoek Imsersoko oporretan izena emateko epea.

IKASTAROA > IRRI-TERAPIA**Ikastaroa, modu naturalean barre egiten ikasteko**

Kultura etxeen eman behar da izena maiatzaren 4a baino lehen eta ikasle kopurua mugatua da

Ikastaroa 25 urtetik gorakoendako da eta gehienez 20 ikasle onartuko dituzte; horretarako, izenemate-ordena hartuko dute kontuan. Izena emateko Eskoriatzako kultura etxera jo behar da edo telefonoz deitu (943 71 46 88). Ikastaroaren prezioa bost euro da.

I.A. > ESKORIATZA
Eskoriatzako kultura etxeak irri-terapia ikastaroa antolatu du. Ikastaroa maiatzaren 8an hasiko da eta maiatzaren 24ra bitartean, astelehenetan eta eguztetenetan 18:00etatik 20:00etara izango dira saioak.

HELBURUA
Ikastaroaren helburua da modu naturalean barre egitea, eta barre algarara iristeko zenbait teknika erakutsiko dituzte: gorputz-espresioa, jolasak, dantza eta arnasketa, besteak beste.

> UDALEKUAK

Begiraleak behar dira uztalean udaleku irekietan umeekin lan egiteko

Udalak umeendako udaleku irekiak antolatuko ditu. Hain zuzen ere, uztailaren 4tik 21era bitartean izango dira. Udalekuetan begirale izan nahi dutenek apirilaren 27a baino lehen aurkeztu behar dute curriculuma Gazteria Zerbitzuan edo Tortolis ludotekan. Bete beharreko baldintzak dira 18 urte izatea eta euskara jakitea. Begiraleak aukeratzerakoan kontuan hartuko dute: begirale titulua izatea, ikasketak, esperientzia, ikastaroak eta biziokia.

KULTURA > 'ESKOITZA, ESKORIATZAKO BAZTERRAK' LIBURUA KALERATU DUTE**Herriko bazterrak marratzu ditu liburu baten Iraia Artzamendik**

Elizateetako eta hiriguneko hainbat txoko ezagutzeko aukera ematen du Iraia Artzamendik libururako margotutako bildumak

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Hauts Urdina elkarreka Quercus Ilex liburu bilduma abiarazi du. Bildumako lehenengo liburua *Eskoitza, Eskoriatzako bazterrak* da, eta Arrasaten jaio baina Eskoriatzan bizi den Iraia Artzamendik egin du.

Iazko neguan Artzamendik udalerriko hainbat txoko eta elizate bisitatu zituen, lumatxoak eskuan zituela. Hauts Urdina taldekoek Artzamendiri eskaera egin zioten gustuko zituen txokoak libururako marratzeko, eta halaxe egin zuen.

Liburuan jaso ditu Bolibar elizatean dauden Erañako sarkofagoak eta iturria, San Miguel eliza, Ugatzu Behekoa, Eraña Garai eta Atallunea baserriak; Mendiolako San Juan Bataiatzailea parroquia, Areanoko landa turismo etxea, pilotalekua; Apotzagako San Bernabe ermita, eliza; Maringo Isasi, Iñurti eta Zabala baserriak, hilerra, eta abar.


Elizateetakoek gain, hiriguneko eraikin eta bazter ugari ere marratzu ditu: Ibarraundi museoa, Zubiateko labea, San Pedro eliza, Jose Arana kalea...

Iñaki Bastarrikak egin du liburuaren hitzaurrea, eta egile Iraia Artzamendiri egindako elkarrizketa gehitu dute. Artearen, liburuaren eta egilearen gainean berba egin du Artzamendik.

LIBURUA ESKURAGARRI DAGO

Liburua bost eurotan jarri dute salgai Azkoaga tabako-dendan, Bentamotz tabernan eta Naira pubean. Liburua eskuratzeko beste bide bat da Iraiari eska: *eskoitza@hotmail.com* helbidera edo 606 74 42 37 telefono zenbakira.

Hauts Urdinak taldearen helburua da artegintzan dabiltsaen lanak ezagutzera ematea, eta laster Zumarragako margolari baten lana kaleratuko dute.



FAGOR 

Fagor Ederlan, Elk. Koop.

Torrebaso pasealekua 7
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa
Tel.: +34 943 71 90 00
Fax: +34 943 71 90 01

 MONDRAGON COOPERATIVA

AZKOAGA

ESTANKOA

943 71 48 77
Zure
Zerbitzura

ERRETIRATUAK > 2006RAKO ASMOAK

Erretiratuen elkartea kultura astea antolatuko du aurten

Elkartea 325 bazkide ditu, baina iraupena bermatzeko gehiagoren beharra du

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA
Erretiratuen elkartea urteko batzarra egin du eta iazko ekintzen balorazioaren ostean, aurtengo egitasmoak gertatu dituzte. Iazkoaren ildotik jarraitu arren, izango da berrikuntzarik.

Aurtengo egitasmoak gertatzen hasita erabaki dute irteerakin lehen bezala jarraituko dute-la. Maiatzean, esaterako, egun erdiko irteera egingo dute eta ekainez Nafarroara joango dira egun osorako.

Hitzaldiak, ordea, gutxiago egingo dituzte eta asmoa da horien ordez zinema emanaldi edo antzerki saioren bat ipintzea. Bestalde, aurten kultura astea antolatzea da euren helburua. Irailaren amaieran edo urrian

izango da eta antzerkia, hitzaldia eta irteera egin nahi dituzte.

Ekitaldiekin gustura badau-de ere, elkarteko presidente Andoni Azkaratek esan digunez, "orain 325 bazkide gaude, baina elkartea aurrera egingo badu bazkide berriak behar ditugu".

GARRAIOA

Antzuolako erretiratuek aldarri-kapen bat egin dute ibarreko bes-te erretiratuekin batera: garraio-arena, hain zuen ere. Batetik eskatu dute zerbitzua hobetzea, herrian isolatuta geratzen dire-lako; eta bestetik, bidaia txartelaren prezioa erdira jaistea.

Lizarrustitik Ataunera oinez, Arrolarekin

Arrola mendizale elkartea antolatuta irteera egin zuten domekan 22 lagunek. 11 gaztetxok eta 11 nagusik Lizarrustitik Ataunera bitartean lau orduko ibilaldia egin zuten. Goizean barrena eguraldi oso ona izan zutela esan digute, baina punturik gorenean haize handia izan zutela. Antolatzaileen esanetan jaitisiera gogorra eta luzea izan zen, baina "gogorrenak gaztetxoak izan dira, goitik behera oso ondo moldatzen direla ikusi dugu".



JOSE ANGEL FERNANDEZ

> ERREPIDEAK **Sagastitik saihesbidera doan bidea aurki zabalduko dute**

Sagasti auzotik errepide nagusira doan bidea joan zen astean asfaltatu zuten Asfaltos Urretxu enpresako langileek; eta orain-dik margotzeko badago ere, datoz-ten egunetan ibilgailuendako zabalduko dutela jakinarazi digute Udalean. Bide hori eskumara joateko baino ezingo da erabili; eta sartzeko ere eskumatik egin beharko da.

> BERTSOLARITZA **Txartelak salgai daude maiatzaren 5eko bertso afarirako**

Idolaz Euskara Elkarteak antolatuta bertso afaria izango da maiatzaren 5ean. Afaria Olalde elkartean izango da eta txartelak apirilaren 22tik 30era bitartean eskuratu ahal izango dira Mox, Larrea eta Ongi-etorri tabernetan 15 euroren truke. Afalostean jardungo duten bertsolariak Xabier Paya eta Oihana Bartra gazte bizkaitarrak dira.

> ASTE SANTUA **Zenbait eraikin publiko itxita egongo dira, oporrak direla eta**

Aste Santua dela eta, herriko zenbait lekutan ordutegia aldatu dute. Eskolan oporretan dira apirilaren 24ra bitartean; hala ere, haurreskola apirilaren 13tik 17ra bakarrik itxiko dute. Udaletxea, jaiegunean egongo da itxita. Liburutegia gaur, apirilak 12, eta apirilaren 19an itxiko dute; eta Osasun Zen-troan larrialdi zerbitzua eskainiko dute, baina Bergaran.

> ZERGAK **Ibilgailuen zergak ordaintzeko epea ekainaren 30era arte**

Egubakoitzeko Gobernu batzordean aurkeztu zuten 2006ko ibilgailuen errolda. Zerrendaren arabera 1.231 ibilgailu daude herrian; hauetatik gehienak dira 12 zaldi fiskaletik 14ra bitartekoak: 559. Ibilgailuen zergak ordaintzeko epea maiatzaren 1etik ekainaren 30era arte da. Hala ere, Udal-ek gomendioa egin diete jabe ei ordainketak helbideratzeko.

> LEHIAKETA **Deia lore apainketa lehiaketarako balkoi eta leihoak gertatzeko**

Azken urteotan bezala aurten ere balkoi eta leihoetako lore apainketa lehiaketa egingo dute. Sari banaketa ekainean izango denez, epaimahaikoak oraindik ez dira kalez kale ibiliko balko-rik dotoreenen bila; baina Udaletik abisua eman dute loreak ger-ta ditzaten, lehiaketako 90 euroak eskuratu nahi badituze, behintzat.



Jose Luis Zabalo

Birgaitzeak • Fatxadak
Teilituak • Sukalde eta bainu gelak

Kalegoi 9, 1. solairua, ANTZUOLA. Tel. 943 76 60 89



Zurrategi plaza 4, behe. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80



Sukalderako eta
bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

IRAUNKORTASUNA > EKINTZA PLANA

Plangintza gertu dago herriko gabeziei aurre egiteko

Diagnosia egin ostean, ekintza plana gertatu dute ingurumen, hirigintza zein gizarte arloko gabeziak konpontzeko

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA
Udaltalde 21 egitasmoaren barruan iraunkortasunerako ekintza plana aurkeztu dute.

Egin beharrekoen artean garapen soziala sustatzea aipatu dute. Horretarako, immigrazio plana eta etorkinen harrerako protokoloa egitea; Udaleko Gizarte Zerbitzuen egoera aztertzea; zaintzaeko etxebizitzan gaineko neurriak hartzea; Eguneko Zentroa egokitza eta Erretiratuen Elkarteaarekin elkarlana bultzatzea aipatu dituzte.

Zerbitzuak hobetzea eta parte-hartzea sustatzea ere badira planaren zati. Asmoen barruan daude pediatria zerbitzua zabal-

tzea; kaleko altzarien mantentzelanak eta haurtzaindegia zerbitzua hobetzea. Parte-hartzea sustatzeko jarduerak antolatzea ere aurreikusi dute. Euskarak ere badu lekua planean; Udal Euskarra Plana abian jartzea eta Udaleko zerbitzuetan euskara hobetzea proposatu dituzte.

HIRIGINTZA

Arau subsidiarioetan irizpideak aurreikusi nahi dituzte, hirigintza oreaktuaren alde. Hartu beharreko neurriak dira industria gaineko azterketa egitea, industria herritik kanpora aterratzea eta industria eta etxeak banatzeko barrerak ipintzea.

Etxebizitzari dagokionez, etxe hutsean inventarioa egitea, Bizigune programa zabaltzea, etxebizitza beharren gaineko inuesta egitea eta lokalak etxebizitza bihurtzeko baldintzak arautzea aurreikusi dute.

Irisgarritasuna ere hartu dute kontuan: industrialderako bidea egokitza eta eskolako eskaileretan baranda ipintzea.

Ingurumena eta lehen sektorea sustatu

Nekazaritza eskolekin elkarlana bultzatzea, landa turismoa indartzea, baserrietak bideak zaintza, baserritarrei laguntzak ematea eta produktuen salmenta dira lehen sektorea sustatzeko irtenbideak.

Bestalde, basoen kudeaketa, herriko natur guneean egoera aztertzea, autoen erabilera mugatzea, Asentzioko aparkalekuak kanpora ateratzea eta debekututako eremuetan txabolak ez eraikitza dira, plangintzaren arabera, ingurumena babesteko hartzearreko neurriak.

ERLIJOA > ASTE SANTUA

Aurten ez da prozesiorik izango Aste Santuan

Eguen Santutik Pazko Domekara bitartean elizkizunak izango dira parrokian

I.A. > ELGETA
Parrokiatik jakinarazi digute aurten ez dela prozesiorik izango Aste Santuan. Arrazoia da ez dagoela jenderik andazain (andero) lanetarako.

ELIZKIZUNAK
Prozesiorik ez badago ere, honako elizkizunak iragarri

ditzute Aste Santurako: Eguen Santuan, meza izango da 19:00etan; Egubakoitz Santuan, 10:00etan gurutze-bidea eta 19:00etan Jesusen Nekaldiaren ospakizuna; zapatuan, 22:00etan pazko-beila eta ondoren, txokolate-jana; eta Pazko Egunean, 12:00etan meza nagusia. Parrokiak izango dira elizkizunok.



BILDUMAK Hainbat liburu bilduma prezio erdian ipiniko dituzte salgai.

GOIENKARIA

KULTURA > LIBURUAREN EGUNA

Liburutegia plazan egongo da hilaren 21ean

Liburu berriak ikusteko eta zaharrak etxera eramateko aukera egongo da

I.A. > ELGETA

Apirilaren 23an Liburuaren Nazioarteko Eguna dela eta, liburutegia plazara aterako dute apirilaren 21ean. Arratsaldez, 19:00ak bitartean egongo dira ikusgai liburuak.

Liburutegira ekarri dituzten euskarazko zein gazteleraezko liburu berriak ipiniko dituzte, jendeak begiradatxoa emateko.

Bestalde, liburutegitik kendu dituzten liburuak jendearen

eskura jarriko dituzte; nahi izanez gero doan edo borondatearen truke etxera eramateko. Jasotako dirua liburu berriak erosteko erabiliko dute.

Aurtengo berrikuntza da zenbait liburu bilduma salgai ipiniko dituztela prezio erdian. Izan ere, liburutegian bilduma horien ale bat baino gehiago dituzte. Bildumen artean daude, besteak beste, *Euskaldunak* eta *Literatura Española*.

HISTORIA-ELEBERRIAK

Liburutegiko arduradun Maria Elena Eztenagak herriko irakurzaletasunaz berba egin digu: "Gehien irakurtzen diren liburuak historia-eleberriak eta historia eta misterioa uztartzen dituztenak dira. *El código da Vinci* liburuaren arrakastaren ostean, hori eta antzerakoak nahi ditu jendeak. Autore arrakastatsuak Dan Brown, Toti Martínez de Lezea eta Ken Follett dira".

Haren esanetan, "gaztetxoak dira euskaraz gehien irakurtzen dutenak, eta 30 urtetik gorakoek joera txikia dute".

> KIROLA

Maiatzaren 2an zabalduko dituzte kirolegiko instalazioak

Pilotaleku eta taberna zapatuan inauguratu zitzuten, baina gaintzeko instalazioak maiatzaren 2an zabaldu nahi dituzte. Taberna egunero egongo da zabalik, 10:00etatik 22:00etara. Pilotaleku 10:00etatik 21:00etara zabalduko dute eta maiatzaren 2ra arte erabilera liberako izango da. Maiatzean hasiko dira frontoia-aren erreserbekin eta abendura artean berritzte lanak hasi aurreko erreserbak mantenduko dira; baita squashean ere. Udal Kirol Zerbitzuak, berriz, kirolegiko gimnasioan egiten hasiko dira.

> FRANKISMOA

Fusilatuei omenaldia egiteko laguntza emango du Udalak

Debagoineneko fusilatuaren senitardeko instalazioak omenaldia egingo du ekainaren 11n Arrasateko Laubide plazan. Hain zuzen, 1936ko sarraskitik bizirik atera zirenak omenduko dituzte. Elgetako alkateak fusilatuaren senideen ordezkarri batil lore sorta emango dio. Udalak bat egin du ekimen horrekin eta diruz lagunduko du; 100 euro emanda, hain zuzen. Bestalde, azken udalbatzarrean onartu zuten fusilatuaren gaineko adierazpen instituzionala, honen bidez Espainiako agintariei zenbait eskari egiteko.

> ELKARTASUNA

Udalak hainbat dirulaguntza emango du Sahararako

Udalak hainbat dirulaguntza emango ditu Sahararako. Batez, azken uholdeek eragindako kalteei aurre egiteko 600 euro bideratuko ditu. Bestetik, Oporrak Bakean egitasmoa ere diruz lagunduko du. Programa horren bitartez, Saharako umeek uda Euskal Herriko familiekin igarotzeko aukera dute. Umeak etxean hartzeako prest dauden familieiek Udaleko Gizarte Zerbitzuetan eman behar dute izena; eta zenbat familia diren ikusita erabakiko du Udalak dirulaguntzak nola banatu.

Argi-kontagailuak ordenagailua erabilita irakurtzeko frogatzailea abiarazi dute;

Oraingoz Ibarrako 12 etxebizitzatan abiarazi dute; guztira 40tan egingo dute

UBANE MADERA > ARAMAIO
Egunotan dabiltza Aramaioko zenbait etxebizitzatan sistema berria ipintzen. Udalaren asmoa

ZERBITZUAK > ARGİ-KONTAGAILUEN IRAKURKETA

Kontagailuak ordenagailu bidez irakurtzeko bidea lantzen dabiltza

da udaloko ordenagailutik, Internet erabilita, aramaioaren etxeetako argi-kontagailuak irakurri ahal izatea. Hala adierazi digute Aramaioko Argindar Banatzalea udal zerbitzutik.

Argi-kontagailuaren irakurketa egingo dute Udalaren webgunearen bitartez (aramaio.org).

Bestalde, Udalak irakurketa egiten duen moduan, sistema horren bitartez erabiltzaile bakotzak ere egin ahal izango du irakurketa. Konsultatu ahal izango du, esaterako, egunetan argindarren gastua.

Eta sistema hori ondo ibiliz gero, Udalaren asmoa da aurre-

rago sistema bera erabiltzea urkontagailuak irakurtzeko.

ONDO HASI DA

Dena dela, esan bezala, argi-kontagailuekin hasi dira. 40 etxebizitzatan frogatuko dute sistema. 12rekin hasi dira, eta oraingoz, sistema ondo dabilela esan digute.

Argi-kontagailu berria dituzten etxebizitzak (alta eskatu dute-nak) edo argi-kontagailu zaharra berriarenengatik aldatu dituzten etxebizitzak aukeratu dituzte frogarako. Izan ere, argi-kontagailu berriei txertatuta dute ordenagailu bidez irakurketa egiteko beharrezko den txartela.



OPORRAK San Martin Eskolakoek joan den barikuaren hartzutzen Aste Santuko oporrak, apirilaren 23ra arte.

UBANE MADERA

ZERBITZUAK > OPORRETAKO ORDUTEGIA

Aste Santuko oporretan ordutegi berezia izango dute

Eskolan bi asteko oporrak dituzte; udaltxean, berriz, jai egunak bakarrik hartuko dituzte

U.M. > ARAMAIO

Joan den barikuaren hartzutzen oporrak San Martin Eskolako ikasle eta irakasleek. Bi aste oso dituzte atseden hartzeko, apirilaren 23ra arte, beraz.

ESKOLAKOEN ESKER ONA

Baina oporretara joan aurretik, eskerrak eman nahi dizkiete martxo amaieran antolatutako Egur Astearen parte hartzutenei. Hala adierazi digu eskolako zuzendari Blanca Jauregik. Gaineratu digunez, bereziki honakoak

eskertu nahi dituzte: Santi eta Jesus Mari Elejalde, Jon Ugarte, Juan Antonio Aretxaga eta Edurne Uribarreniturieta eta Alex Mendikute senar-emazteak.

BESTELAKO ZERBITZUAK

Bestelako begiratuta, berriz, liburutegiak eta ludotekak jai izango dute apirilaren 13tik 23ra; eta Udalak eta anbulatorioak 13tik 18ra. Anbulatorioa itxita dagonean medikuaren beharra sortzen bada, Arrasateko ospitaleko larrialdietara jo beharra dago.

1batXixe2bi
Aramaixoko berben **berbakinielie**
2. ZENBAKIXE

Asmatzaillien
artien
zozketatuko
ditugu:



Aramaixoko eztixe,
sagardae eta
gaztaiel Zorte on!

Karandute egon	1 Azala urratute euki X Burutik jota 2 Aberastute
Mistik be ez!	1 Katurik ez! X Isilik, gero! 2 Txiplostiñik ez!
Maskeluoi!	1 Artaburuoi! X Gaur merixendie! 2 Billerlekuei esateko
Amillena	1 Haxe hotza X Untzillako baserrixe 2 Zapaburue

Aukeratu erantzuk, moztu txartela eta ekarri Aramaixoko Liburutegira, APIRILAREN 28RAKO.
Izen-deiturak: Telefonue:

Urrusie	1 Uretako usue X Errusiarrar 2 Emie
Gaztaie	1 Tripie X Ipurdixe 2 Burue
Oreixe	1 Ekaitza X Basahuntze 2 Belarrittekue
Ez dauket ningunorik	1 Ez dauket lagunik X Ez dauket gogoik 2 Ez dauket erreparorik

1. berbakinielako irabazlie:
Aitor Astondoa
Zorionak!

Erantzun zuzenak:

Kiña jota egon: 2 Lur jota egon

Karapaiak: 1 Mokotza

Ganbelue: 2 Ganorabakue

Ipurtxitxurre: X Ipurdi puntako hazurre

Tentaxi: 1 Arbolha haundi

Turtukiñe: X Alue

Satza: 2 Pertsona loixe

Afoñue: 1 Haxe umela

Agustin Arantzabal > Zaragozako jokalaria

"Finala irabazten ez badugu, finalerako sailkatu izanak gutxirako balioko du"

XABIER URTZELAI > BERGARA

Agustin Arantza balen taldeak ordutxikoa barru jokatuko du Spainiako Kopako finala. Azkeneko denboraldian Zaragozarekin jokatu dituen minutuek esaten diote ez dela hasierako hamaikakoan egongo: "Denboraldian zehar gehien jokatu dutenak zelairatzea izango litzateke normalena". Finalaz gain, badago Agus-ekin zertaz berba egin.

Kopako finalaren atarian gauude; zelan bizi duzu egoera hori?

Egia da egunero ez dela horrelako final bat jokatzen, eta edonork gurako luke hor egon. Berezia da.

Jokatzeko esperantzariak?

Egia esateko, ez dut esperanza handirik. Denboraldian zehar gura baino minitu gutxiago jokatu ditut, eta normalena gehien jokatu dutenak zelairatzea izango litzateke.

Zelako partidua aurreikusten duzu?

Horrelako final bat aurreratzea ez da erraza. Uste dut aukerak %50ean banatuko nituzkeela, horrelako partiduetan Ligako sailkapenak ez du-eta gauza handirik esaten.

Kopa eskuan, erretiroa hartzeko modu polita izango litzateke; ala, ez dago erretirorrik?

Eespero dut oraindik futbolean jokatzen jarraitza. Zaragozarekin auren amaituko dut kontratua, baina oraindik ez dut klubarekin berba egin. Denboraldia amaitzerakoan ikusi egin beharko da zeintzuk diren ditudan aukerak, eta orduan erabaki.

Atzerrira joatea izan daiteke aukera horietako bat?



Arantza balek oraindik ez daki Zaragozan jarraituko duen.

EL PERIODICO DE ARAGON

Aukera polita bada, zergatik ez? Orain, baina, familia daukat nirekin, eta hori ere kontuan hartu behar da. Guztiondako oneña den erabakia hartu behar.

Ligan sailkapenaren erdialdean, lasai, eta Kopan finalean. Zer egin du Zaragozak ondo?

Egia da taldea Bigarren Maiatik igo zenetik nahiko txukun ibili dela. Joan den urtean UEFA txapelketa jokatu genuen, eta aurten Kopan finalean gauude. Dena dela, egia da Kopan zorte apur bat izan behar dela. Guk, adibidez, lehenengo bi kanporaketak penaltietan gainditu genituen; gero, baina, talde handiak utzi ditugu atzean. Azkenean, finala irabazten ez badugu, bertara iritsi izanak gutxirako balioko du.

Zapore gaziarekin utzi zenuen Realak. Orain, patxada handiagoarekin, erabaki zuzena izan?

Bai, inoiz ere ez naiz erabaki hura hartzeaz damutu, nahiz eta bere momentuan gogorra izan zen. Joan den urtean minitu asko jokatu nituen, eta gustura geratu nintzen egindako denboraldiarekin. Aurten ez dut horrenbeste jokatu, eta alde horretatik ez dabil urte ona izan.

"Erabaki gogorra izan zen, baina ez naiz damutzen Realak utzi izanaz; etapa bete nuen"

"Koparen hasieran zortea izan genuen, baina gero talde onak utzi ditugu atzean"

ten. Baina Realean etapa bat bete nuen eta asmatu egin nuen era-bakiarekin. Gainera, oso ondo hartu naute Zaragozan.

Realaren gainean berbetan hasita, zelan ikusten duzu talde txuri-urdina?

Egia da denboraldia gogorra izaten dabilela eurendako, eta ondo dakit horrela egotea zer den. Taldekide izandako hainbatetkin egiten dut berba, eta badakit ez daudela ondo. Baina 13. postuan dagoen Athleticetik hasi eta azken posturaino talde mordoa dabilta jaitsiera postuetatik aldentzeko lehian, eta sei partidu geratzen dira.

Zaragozara itzulita, taldeki-deen artean zein aukeratuko zenuke?

Daukaten gaztetasunagatik eta futbolean egiteko ilusioagatik Cani eta Zapater azpimarratuko nituzke.

Aurrean izan dituzun kontrario gogorren gainean ere galdu gaitza da?

Neuk jokatzen dudan postuan defendatzea egotzen zait, eta hainbat jokalari on izan ditut aurrean: Reyes gorputzaldi onean zegoenean, Figo, Joaquin...

Ligan dagoeneko gaitza da ezustekorik egotea, baina Txapeldunen Ligan?

Bai, Liga dagoeneko Bartzelonarena da. Txapeldunen Ligan, berriz, Vila-realek eman du ezusteko polita, ona da-eta horrelako taldeak azken txanparaino sailkatzea. Bestela, ustezko finalean egon behar zuten Bartzelonak eta Milanek finalaurreko jokatuko dute, eta ez finala. Edonor sailka daiteke finalerako.



MAILAKO PARTIDUAK Sevilla-Manchester partiduko artxiboko irudi bat. GOIENKARIA

FUTBOLA > REALAREN GAZTE MAILAKO NAZIOARTEKO 22. TXAPELKETA

Reala, Osasuna eta Boca Juniors ibarreko zelaietan

Bihar hasiko den txapelketako partiduak Bergaran, Aretxabaletan eta Oñatin

X.U. > ARRASATE

Urtero moduan, Realaren gazte mailako nazioarteko txapelketak aseko du futbol zaleen grina, txapelketa horretako hiru norgiehagoka ibarreko futbol zelaietan jokatuko dituzte-eta. Hala, egubakoitzean, hilak 14, Boca Juniors eta Osasunak Agorrosinen jokatuko dute. Atxabalpeko norgiehagokan, zapatuan, eus-

kal taldeen arteko derbia egongo da: Reala eta Osasuna aurrez aurre. Eta domekan Oñatiko Azkoagain futbol zelaian egongo da hitzordua, Realak Boca Juniors hartuko du. Partidu guztiak 17:00etan jokatuko dituzte.

Talde horiez gain, Vila-realek, Borussia Mönchengladbach-ek, Bartzelonak, Athleticek eta Gipuzkoako Konbinatuak osatu-

ko dute txapelketa. Urte askoan Real Madrilgo taldeak ere esku hartu izan du, baina hitzarmena dute AE Betako talde batekin, eta Ameriketan ibiliko dira. Euren ordez, Txapeldunen Ligako finaledieta sailkatu den taldearen harrobikoak izango dira Gipuzkoan: Vila-real.

Sarrerak 6 eurotan egongo dira salgai. Gogoan izan, gainera, txapelketa horretan Realak batzen duen diru guztia Gipuzkoako klubetara bideratuko due-la, harrobia bultzatzeko.



> MAGIA ELGETAN

Magia Mostraren II. ekitaldia izango da maiatzean, Espaloian > 26



> 'EGIZU LO, TARTALO'

Umeendako antzezlana Oñatin, hilaren 23an > 31

> MAITE ALBES

Madrilen bizi da aspaldian Maite; azken urteotan Goi Ingeniaritza ikasten ibili da eta baita dantza eskolak hartzen eta ematen. Hainbat ikuskizunetan ere hartu du parte > 27



MAGNOLIA

Magnolia grandiflora

Bergaran, Olaso dorrean

Ehunka urte ditu Olaso dorreko magnoliak eta sasoiko dago. 26 metroko altura dauka eta enborraen perimetroak 6,2 m neurtzen du. Landare loredunen artean hori da familia zaharrenetako bat. Poliki hazten da eta espezie bakarti moduan erabiltzen da, nahiz eta urte asko behar izan ale bikain bat lortzeko. Zuhaitz Berezia izendapena du Olasokoak.




HARITZA

Quercus robur

Oñatiko plazan

Gernikako Arbolaren ondorengoa da Oñatiko plazaren inguruan dagoen haritza. 1917ko otsailaren 2an landatu zuten Jose Miguel Gomendio eta Anjel Ortiz de Zarate gazteek, eta ekitaldian jende ugari batu zen. Ladislao Sagastizabal parrokoak Gernikako Arbola kantua abestu zuen jarraian. Hesi batek inguratzen du eta arbola sendo dago.



SEKUOIA

Sequoiaadendron giganteum

Monterronen, Arrasaten

Bi sekuoia mota daude Monterronen: *Sequoia sempervirens* eta *Sequoiaadendron giganteum* (argazkian). Azken horrek Zuhaitz Berezia izendapena dauka. Zalantzak gabe, Monterrongo zuhaitzik altuena da (38 m) eta adaburuak 18 m-ko diametroa dauka. Ziurtzat ematen ez bada ere, 350 urte inguru izan dezake. Oso egoera onean dago.



ZEDROA

Cedrus libani

Felix Iñurrategi lorategian

Libanon, Sirian eta Turkian jatorria duen zuhaitz horren ale bat dago Aretxabaletan, XX. mendearren hasiera ezkerro. 40 metro inguruko altuera hartu duten zedroak badira, baina Aretxabaletako txikiagoa da, 25 bat metrokoa. Zedroaren ondoan zegoen ezkia egoera txarrean zegoen eta behera etorri zen 2002an. Alboko indio gazta eta ezkia ez dira sasoirik onenean.



Monterrono sekuoia eta Olaso dorreko magnolia, zuhaitz berezien artean

Horiez gain, badira beste hainbat altxor Debagoienean

EDU MENDIBIL > BERGARA

Urteko sasoi honetan arbolak inoiz baino ederrago agertzen zaizkigu. Eta askotan ez gara ohartzen alboan ditugun altxorrekin. Badira bitxitasunagatik babes berezia daukaten zuhaitzak ere. Eusko Jaurlaritzak zuhaitz berezien gaineko gida kaleratu zuen eta horien artean azaltzen dira Arrasateko Monterron parkean dagoen sekuoia edo Bergarako Olaso dorreko magnolia.

ALTXORRAK GERTUAN

Horiez gain, badira beste hainbat altxor Debagoienean: arte ikusgarriak Urkulun, Otalan eta Aozaratzako Matikuan; katalpak Arrasaten, Zaldibarren; San Martinho hariztia Oñatin; Bergarako Usondo parkean eta Arrasateko Monterronen diren ginkgo bilobak (zaharrerenetako eta jatorria Txinan duena); Aloñako bizarrean, hegoaldeko maldako zelaietan kiribilduta dauzen gorostia eta elorri zuria... > 26

ALTXOR BERDEAK

NATURA > GERTUAN DIREN ALTXORRAK

Ibarreko herrietan ere badago non gozatu naturaz

Parkeei dagokienez, beharbada Usono eta Monterron dira aipagarrienak, espezien aberastasunari erreparatuta

Oñatiko Natur Eskolako irakasle Imanol Biainek eman digu Aloñan dagoen zuhaitz bitxi horren berri: "Bi emborrak lotuta daude bata bestearkin eta kuriosoa izaten da neguan elorriari hostoak erortzen zaizkiolako, baina gorostiarri, ostera, ez...".

Oñati inguruan, era berean, Arantzazuko arroan diren zumarrak nabarmentzen ditu Biainek. Azken bi hamarkadetan-edo grafiosi gaitzak gogorri eraso du zumarra, zuhaitzaren bizi iraupena arriskuan jarriz. Klima epeletako espeziea da eta ibai bazterretako zoru fresko eta ezagunetan bizi da. Biainek azpimarratzen duenez, ale ederrak geratzen dira Arantzazu inguruan.

Bestalde, Azkoagain inguruan diren parke botanikoa eta San Martingo haritzia ere ikus-tekoak direla dio. Haritz zaharrak eta handiak dira San Mar-

tinen. Hala ere, zenbaitetan irizpide falta sumatzen du Biainek: "Haritzak ez dira pagoak bezain arruntak eta ez da logikoa San Martinen haritz bat ordezkatzea egokitu denean, haren ordez pagoa landatzea...".

MONTERRONEN ESPEZIE UGARI

Lore eta zuhaitz kontuetan herri bakoitza bere kabuz doa, ez dago lan komunik Debagoienean. Parke publikoiei dagokienez, beharbada Bergarako Usono eta Arrasateko Monterron dira aipagarrienak, espezien aberastasunari erreparatuta.

Peio Garai Arrasateko Udaleko Ingurumen Zerbitzuan ari da lanean, basoetako teknikari. 2004an 40 zuhaitz inguru bota behar izan zituzten Monterronen, gainbeheran hasita eta erortzeko arriskuan zirelako. Bertako espezieak aukeratu zituzten haien ordezkatzea: astigar zuriak, pagoak, lertxunak, haritzak, gereziondoak eta ezkiak.


Garairen arabera, autoa hartu barik bada hainbat herri-tan naturaz gozatzeko aukera. Horren adibide da baita Etxezarretan dagoen parkea. Bestalde, Kurtzetxiki eta Musakola inguruan Hidalgobaso txukuntzeko asmoa dutela diosku Garaik.

Buddleia, landare inbaditzalea gurean ere

Angiozarko Loidi baserrian jaoia, Angel Loidik gure inguruan zabaldu den buddleia landare inbaditzalearen berri eman digu. "Azken 30 urteotan izugarriri zabaldu da eta heldu beharreko arazoa da. Utzikeria dago gai horrekin eta baserritarrei informazioa ematea ez legoke gaizki". Iritzi bera du Imanol Biainek: "Plaga hauek saihestea ez da erraza, baina bertako landaretzaren lekua hartu baino lehen zerbaite egin behar da".



Buddleia landare inbaditzalea. E.M.



MUNDUKO TXAPELDUNA Migue magoak munduko karta-magia txapelketa irabazi zuen 2003an.

GOIENKARIA

ANTZERKIA > IAZ PUBLIKOAREN SARIA ESKURATU ZUEN JANDRO, PARTAIDEEN ARTEAN

Magia mostraren II. ekitaldia egingo dute maiatzean Elgetan

Magiarengan inguruan hiru jardunaldi egingo dituzte Elgetako Espaloia Kafe Antzokian, maitzaren 5etik 7ra bitartean

EDU MENDIBIL > ELGETA

Magia mostraren II. ekitaldia ospatuko dute Elgetan, maiatzaren 5etik 7ra bitartean. Joan zen urtean jasotako arrakasta ikusirik, Espaloia Kafe Antzokiko arduradunek programa erakargarria iragarri dute aurtengorako. Iaz bezala, magiarengan inguruan hiru jardunaldi egingo dituzte.

Lehenengo emanaldia maiatzaren 5ean (egubakoitza) izango da, Migue magoaren eskutik, 22:30ean. Munduko karta-magia txapelketa irabazi zuen 2003an (1973an Juan Tamariz eta 1988an Pepe Carroll nagusitu ziren). Espaloiako kultura arduradun Josu de Vegaren arabera, ikus-kizun aparta da Miguera.

BOST MAGO ZAPATUAN

Maiatzaren 6ko emanaldian, berriz, Jandro, Jorge Blass, Arno,

Karim eta Francisco Aparicio arituko dira, 22:30ean hasita. Hain zuen ere, joan den urteko ekitalditik Jandro da errepikatuko duen bakarra. Publikoaren saria eskuratu zuen iaz eta berriro bere magiarekin eta umorearekin gozatzeko aukera izango dute ikusleek.

Zapatuko emanaldian maila handiko magoak izango ditu alboan: Jorge Blassek nazioarteko hainbat sari lortu ditu; Monako-ko jaialdian saritutakoa da Arno; Donostian eszenako magia saria irabazi zuen Karim-ek eta Francisco Aparicio pick-pocket-aren maisuetako bat da.

DOMEKA, HAURREI ZUZENDUTA

Lehen bi emanaldiak publiko helduari zuzenduta badaude ere, txikienei zuzendutako jardunaldia izango da azkena, domekakoa.

Equerdia ezkerro hainbat saio egingo dituzte kalean eta herriko beste hainbat txokotan, eta 13:00etan magia eta globoflexia ikuskizuna eskainiko dute Arabako Ilusionismo Elkartekoek. Arratsaldean, berriz, Jean Philippe Atchoum frantziarrak globomagia saioa egingo du Espaloian, 19:00etan.

MAILA HANDIKO JAIALDIA

Josu De Vegak zera adierazi digu: "Bizkaian eta Gipuzkoan ez dago Elgetakoaren mailako magia jaialdirik. Zerbait berezia antolatu nahi genuen eta Gasteizen egiten den jaialdiaren estiloko zerbait antolatzen animatu ginen. Erantzuna bikaina izan da eta urtebete inguru eman dugu partaideak lotzen. Hurrengo urtean Juan Tamariz etorriko dela ia ziurtzat eman dezakegu".

Jaialdiak 42.000 euro inguruko aurrekontua dauka. Egubakoitz eta zapatuko emanaldiatarako sarrerak 15 eurotan salduko dituzte eta amaiera ekitaldikoak, 12 eurotan.

ZATOZ ETA ERAMAN ITZAZU PERTSONAIEN ITSASGARRIAK

Informa zaitez zinemetako tabernan. Sustapenak balio du izakinak agortu arte.



E.S.

C.G. EL BOULEVARD

ABACO

Maite Albes > Ingeniarria eta dantzaria

"Dantzarekin lan dezente daukat, baina ikasketekin bateratzea zaila da batzuetan"

Maite Albes Madrilen bizi da aspaldian, horregatik ez dugu GOITBn aurkezle lanak egiten

ikusten. Azkeneko urteotan Goi Ingeniaritza ikasten ibili da Madrilen eta baita dantza esko-

lak hartzen eta ematen ere. Horrez gain, dantzako hainbat ikuskizun eta lehiaketatan esku

hartzen dihardu. Egunari halako etekina ateratzeko sekretua zein den azalduko digu.

IKER BARANDIARAN > ARRASATE
Maite Albesek Goi Ingeniaritza bukatu du eta praktikak egiten dabil Madrilen. Horrez gain, dantza eskolak hartzen, ematen eta ikuskizunak egiten dabil gelditu barik.

Zer izan gura zenuen nagusitan?

Beti esaten nuen irakasle izan gura nuela, baina ez dakit zergatik. Eskola partikularrak, gimnasia erritmikoa, spinninga eta aerobika ematen ibili izan naiz.

Baina Ingeniaritza ikastea era-baki zenuen...

Bai. Aita ingeniarria da, anaia ere hori ibili da ikasten... Nik SHEE (IVEF) egin gura nuen, baina nota onak ateratzeko erraztasuna daukat eta gurasoek aholkatu zidaten lan aukera handia goak emango zizkidan zerbaiz ikasteko. Batxilergo teknikoa ikasi nuen proba moduan, eta gusatutu egin zitzaidan. Horregatik, Ingeniaritza Mekanikoa aukera-tu nuen.

Hala ere, dantza eta kirola ez zenituen albo batera utzi.

Ez. Gimnasia erritmikoan oso txikitán hasi nintzen, eta utzi nue-nean, 18 urterekin, aerobika ikasten hasi nintzen. Ordurako Maltzaga-Urbina saskibaloi taldearen animatzailea nintzen, eta dantzarako zaletasuna piztu zitzaidan. Aerobikak ez nau dantzak beste erakartzen, nahiz eta oso aproposa den barrenak husteko.

Familiakoak dantza-zaleak zarete, ezta?

Bai. Izeba beti ibili da dantza ikasten; aitak oso gustuko du dantza egitea; aitonak euskal dantzak egiten zituen; baita anaiak eta biok ere. Etxekoak musika entzun bezain laster mugimenduan jartzen gara guztiok.

Zeren bila jo zenuen Madrile-ra eta zer aurkitu zenuen han?

Nire asmoa zen Goi Ingeniaritza eta dantza ikastea. Nik uste baino gauza gehiago aurkitu ditut Madrilen. Industria Ingeniaritza ikasteko aukera izan dut. Horrez gain, Iberdrolak energien gaineko masterra egiteko aukera eman zidan. Sasoi baten, goizetan masterra, arratsaldean Goi Ingeniaritza eta gauean dantza egin nuen. Hala, ikasketak bukatu nituenean, unibertsitatean ikasle onenaren saria eman zidaten, eta Madrilgo Politeknikoan doktoretza egitea eskaini zidaten. Baina ez nuen gauza gehiago ika-



JOSETXO ARANTZABAL

PERTSONALA

Herria: Arrasate. **Adina:** 25 urte. **Zaletasunak:** Dantza, kirolak eta musika. **Zure bizitza aldatu duen musika taldea?** Metallicak markatu nau. **Inoiz esan dizutengauzarik politena?** Kontua da zelan esan zidaten: "Zu zeinek egin zaitu? Nondik irten zara?"

Maniarik badaukazu? Perfumeak ez ditut atsegin, baina garbitasun usaina bai, batez ere leungarriena; tau-la gainera ez dut gauza horirik jantzita eramatzen... **Dantzari bat?** One for Seven taldekoak eta Olaia Utrilla: lirikoan, hip-hopian, funkyan... oso ona da.

si gura, eta proiektuarekin hasi nintzen, ikasitakoa praktikan jarri gura nuelako.

Eta dantzaren alorrean zer ikasi duzu?

Madrilgo akademia baten ize-na eman nuen, eta oso gustura nago. Oso akademia ona da, asko ikasi dut. Horrez gain, akademik agentzia artistikoa ere badauka eta ikasleei hainbat lan lortzen dizkigute: ikuskizunetan, telesailetan, iragarkietan, katalogoetan... Lan batzuei ezetz esan behar izaten diet, ikaskete-kin bateratzea zaila delako.

Lehiaketetan ere ibiltzen zara?

Bai, ikaskide talde batek One for Seven taldea sortu genuen eta lehiaketa askotan ibili gara. Domekero elkartzen gara entse-atzeko. Horrez gain, joan den ikasturtea ezkerro dantza eskolak ematen nabil eta ikasleak lehiaketa batzuetara eraman gura ditut, motiba daitezen eta lehiatzen ikas dezaten. Ekainaren 10ean, adibidez, Euskal Herrira etorriko gara, Hondarribiara.

Zer moduz umeei dantza esko-lak ematen?

Oso ondo. Gaztetxotan Arrasaten umeei gimnasia erritmikoa ematen ibili nintzen eta oso espe-rientzia ona izan zen. Horren ostean, Txatxilipurdirekin eta frantziskotarrekin begirale ibili nintzen. Aspalditik neukan ume-kin berriro aritzeko gogoa, eta aurten sei eta bederatzi urte arte-koei irakasteko aukera eman didate. Dantzaz gain, beste gauza asko irakasten diet: psikomotrizitatea, koordinazioa, elastikotasuna, irudimena...

Zer sumatzen duzu faltan Madrile zuadenean?

Familiakoak, lagunak, txiki-teoa, mendiak... Etxekoek asko oroitzen naiz: amaren porrusalda, aitak domekan esan ohi didan "Maite, zer begitxo daukazun"... Madrilez ez dago halako bizi kalitaterik. Presaka bizi gara, ez da oso ondo jaten, jendea ez da familiaren batzen...

Zure egunek 24 ordu dituzte?

Ez. (Barre) 50 ordu! Garran-tzitsuena da ondo antolatzea, lo gutxi egitea eta, batez ere, gusto-ko gauzak egitea.

Lanean non ikusten duzu zure burua?

Ingeniaritzan Ikerketa eta Garapena alorrean lan egiten.

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:

- Dúplexa. Masterreka. 180 m².
- Dúplexa. Ortuibar. Oso ondo.
- Bidekurutzea 66 m². Oso ondo.
- Ibarraiai 106 m². Oso ondo.
- Espolioa 156 m². Oso ondo.
- Koldo Eleizalde 87 m². Ondo.
- K. Eleizalde 90 m² + telatu azpia.
- S. Pedro 78 m². Ganbara. Berriuta.
- Zabaltegi 50 m². Oso ondo.
- T. Aranzadi 140 m². Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Garajea.
- Bidekurutzea 96 m². Oso ondo.
- Faiskozeta 104 m². Oso ondo.
- Oñate 97 m². Oso ondo.
- Iparagorri 75 m². Ondo.
- Zubiaurre 80 m². Ondo.
- Artekale 74 m². Ondo.
- Elgeta:**
- San Roke. Ondo.

DEBA GARAIA INMOBILIARIA

Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
Zarugalde 1 Arrasate
T: 943 77 13 02 F: 943 73 12 40

BERGARA:

- Ibarraiai 118 m². Oso ondo.
- San Anton Abad. 75 m². Oso ondo.
- Erdialdea 110 m². Oso ondo.
- Aranerrea 75 m². Oso ondo.
- Zubiaurre 60 m². Oso ondo.
- Makiategi 80 m². Ondo.
- Madura 51 m². Berriuta.
- Zabaltegi 80 m². Oso ondo.
- Iparralde 165 m². Berriztoko.
- Artekale 74 m². Ondo.
- Angiozar bi solairuko etxe. Berriztoko.
- Masterreka 87 m². Oso ondo.
- Martiko 45 m². Ondo.
- Simon Arrieta 89 m². Berriztoko.
- Ozaeta 74 m². Ondo.
- SORALUZE:**
- Salbador 80 m². Berriztoko.
- Gipuzkoako etorb. 80 m². Oso ondo.
- ANTZUOLA:**
- Duplex berria erdialdean.

ENTORNOS INMOBILIARIOS URBANISTICOS

INMOBILIARIA
T: 943 698404

Bergara:

- 109 m², 3 logela.
- 97 m², 3 logela, 2002. urtekoa
- 65 m², 3 logela, 217.675 euro
- Duplexa, 105 m², 3 logela, garajea
- 82 m², 3 logela, berriuta. 210.995 €
- 104 m², 4 logela, egongela haundi, 366.617 euro
- Martiko. Bi urte dela berritua.
- S. Anton Abad. Bi urte dela berritua.
- Ibarraiai 80 m². Bi balkoi.

ARETXABALETA

- 60 m², Berriuta, 2 logela,
- 85 m², 3 logela, jantzia

ARRASATE

- 109 m², 4 logela, terraza, 2 komun

ANTZUOLA

- 51 m², berriuta, 167.000 euro
- 90 m², 3 logela, terraza
- 77 m², berriuta, 217.674 euro

ANGIOZAR

Baserria

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. 60 metro koadro. Bi gela, bainugela eta balkoi a ditu. Eguzkitsua. 204.000 euro. 667 85 19 52.

IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarri ditugu.

943 25 05 01 sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITU. GAINERAKOAK, 16 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitekeen operazioen erantzukizun.

ELGETA	ANGIOZAR	ARAMAIO	ARRASATE
Lagun bat behar da Panaderokua tabernan zerbitzari lanak egiteko. 606 73 11 13	Ortzi erretegia alokatzen da. 943 78 22 80 665 72 24 46	Zerbitzaria behar da asteburuetan lan egiteko. 945 44 50 86	Olarte ikastolareneko ondoan 85 m ² -ko lokal salgai. Etxebizitza bilakatzeko baimenarekin. 652 76 21 63
104. ERRENTAN HARTU Bergara. Etxebizitza hartuko nuke errentan. 645 49 91 05.	DEBAGOIENA Igeltszeroa lanerako gertu. Sukaldeak, komunak, margoketa. 685 72 20 82 943 08 28 97	ANTZUOLA Ile apaindegia batean ile apaintzaile laguntzailea behar da. 659 69 38 36	Debagoiena. Mutil gaztea geruza edo motatako lana egitteko. Deitu telefono hauetara: 661 96 66 33 edo 677 69 14 15.
3/ LOKALAK 301. SALDU	Arrasate. San Andres auzoa. Kurtzetxiki dorrea. Lau logela. Bainugela eta garbigela. 679 16 73 40 09.	Bergara. Emakumea lan bila dabil: umeak zaindu, pertsona nagusiak zaindu edo antzerakoak. 943 76 99 22.	Debagoiena. Neska batek umeak zaindu edo etxeak garbituko lituzke. Deitu telefono honetara: 639 52 46 95.
4/ LANA 401. ESKAINTZAK	Arrasate. Pertsona bat behar da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzen laguntzeko. 943 79 17 29.	Bergara. Mutil gaztea lan bila dabil, zerbitzari moduan, lorezain, sukaldlean jarduteko edo antzerakoak egiteko. Telefonoa: 645 76 36 22.	Debagoiena. Neska esperientziaduna herrietako jaeten tabernan lan egiteko gertu. Telefonoa: 690 84 72 92.
402. ESKAERAK	Bergara. Emakumea gertu etxe lan egiteko, manikienda lana edo pedikura egiten, umeei ilea mozten, orrazkerak	Bergara. Neska gazteak orduna lan egindo luke, arratsaldez. 677 84 60 21.	Debagoiena. Umeak zaindu, adinindu gauez edo egunez zaindu, garbiketa edo ostalaritzaz lanak egingo nituzke. Telefonoa: 610 69 78 15 edo 943 77 15 58.
5/ IRAKASKUNTZA 501. JASO		Bergara. Espainolezkako eskolak	Opel Astra 1.7 TD salgai. Isuzu, 82 zaldi. IAT 2007ko martxora arte. CDa, hagunak (ilan-tak), direkzio lagundua eta aten-ent ibitura centralizatua ditu. Deitu telefono honetara: 649 17 67 74.
			Debagoiena. Esku-zorroa galdu nuen apirileko lehenengo astean. Beltz koloreko. Argentina-koko dokumentuak ditu. Deitu telefono honetara: 636 23599.
			Txakurra. Erramu Zapaturan, apirilak 8. Doa izeneko txakur beltz bat galdu zen Bergaran. Ikusten baduzue, Deitu: 626 33 50 76 edo 629 75 22 9.

PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.

649 84 67 09 (BERGARA)
943 33 18 37 (HERNANI)

7/ ANIMALIAK
701. SALDU

Setter eta Draithhaar arrazatako gurutzatutako 7 hilabeteko txakurumea salgai. Deitu telefono honetara: 629 38 42 94.

8/ DENETARIK
802. EROSI

Aramaio. Basoedo baserri lursail bat erosio nuke. Deitu telefono honetara: 678 72 75 72.

806. GALDU

Debagoiena. Esku-zorroa galdu nuen apirileko lehenengo astean. Beltz koloreko. Argentina-koko dokumentuak ditu. Deitu telefono honetara: 636 23599.

Txakurra. Erramu Zapaturan, apirilak 8. Doa izeneko txakur beltz bat galdu zen Bergaran. Ikusten baduzue, Deitu: 626 33 50 76 edo 629 75 22 9.

UDABERRI - UDAKOMODA

Zeurea da jadanik.

Bukatu da itxaronaldia: hemen da Boulevard dendaguneko udaberri-udako moda.

Zatoz eta begiratu, ukitu, erakutsi, zeure azalari erantsita daramazu.

...sentitzen duzu?

el Boulevard
de Vitoria-Gasteiz

Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez GOIENKARIaren ordezkaritzetako batera.

GOIENKARIA

Astero 18.500 etxetan.

Eskelen prezioa: 85 €.



Ascension Lopez de Armentia eta Benito Domaica; eta Inazio Lopez de Armentia eta Mari Carmen Ruiz Aretxabaletan ezkondu ziren 1956ko San Prudentzio egunean. Urrezko ezteietan berriz ezkonduko dira apirilaren 29an. Gero bazkaria izango dute Gure Ametsa jatetxeen. Zorionak eta ondo pasa!



Arrasateko **Ramon Arizaleta eta Amparo Arellano** 1956ko apirilaren 14an ezkondu ziren Lizarran. 50 urte pasa diren honeitan urrezko ezteiak ospatuko dituzte senideekin. Zorionak eta muxu handi bana etxeko partetik; eta egun eder bat pasa dezazuela.

hildakoak

- Karmelo Zubillaga Ugalde. Arrasaten, apirilaren 6an. 78 urte.
- Jon Ugalde Zaitegi. Arrasaten, apirilaren 8an. 82 urte.
- Santiago Garcia Martin. Bergaran, apirilaren 8an. 82 urte.
- Maria Antonia Egaña Murua. Oñatin, apirilaren 9an. 77 urte.
- Ceferino Moreno Gonzalez, apirilaren 9an. 91 urte.
- Sabina Balantzategi Ugalde. Arrasaten, apirilaren 10ean. 84 urte.
- Gregorio Zumalde Zumalde. Oñatin, apirilaren 10ean. 88 urte.
- Angel Mari Arana Agiriano. Arrasaten, apirilaren 10ean. 43 urte.

ESKELA

Angel Mari Arana Agiriano

2006ko apirilaren 10ean hil zen

Udaberriko argia
zaigu gaur ilundu
guraso eta laguna
holpetik urrundi.
Aurrera egin behar
besterik ez dugu
gure bihotz barnean
gordeko zaitugu.



Arizmendi-Santa Teresa ikastolako irakasle eta langileak.
Arrasaten, 2006ko apirilaren 12an.

URTEURRENA

Jose Luis Miner Arrieta

Laugarren urteurreneneko meza
apirilaren 25an, domekan,
12:30ean,
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Vicenta Lizarralde Zabaleta

Lehen urteurreneneko meza
domekan, apirilaren 16an,
12:30ean,
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Jose Mari Unamuno Larrañaga

Lehen urteurreneneko meza
domekan, apirilaren 16an,
12:30ean,
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Maria Agirre Leturiondo

Jose Ignacio Larrañagaren alarguna

Gasteizen hil zen 2006ko apirilaren 4an, 93 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2006ko apirilaren 12an.

Apirilaren 17a:
084 zozketa

ASTELEHENeko GOIENKARIA
Harpidedunen

txokoa

083 zozketako saridunak

Sei gonbidapen EIBAR-HERCULES futbol partidurako
• J. Antonio Oianguren Bilbatua (Elgeta)
• Ixone Barrutia Urrutia (Bergara)
• Mikel Orobengoa Ortubai

(Arrasate)

- Aitziber Quintanilla Elkorobarrutia (Aretxabaleta)
- Iñaki Arrondo Agirre (Bergara)
- Iñaki Eguren Bengoa (Oñati)

084 zozketako sariak

EIBAR-TENERIFE

futbol partidua ikusteko sei
gonbidapen. (bakoitzari bi)



Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

09:00etatik 18:30era.

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Sariak astero!

Astelehenean, apirilak 17, sari hauet izen-abizenak izango dituzte.

Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

Harpidedun ez bazara...

berriak

> PROGRAMAZIOA
**Segurako Aste
Santuko prozesioa
egunean**

Segurako Aste Santuko prozesioak ezagunak dira Gipuzkoan. Goierriko herri horretako herritar askok esku hartzen du prozesioetan. Pausoak jaisteko elkartzen dira herritarak, Ama Jaso-kundearen Parrokiatik irten eta herriko kaleak zeharkatzent dituzte. Segurako prozesioa ikusteko aukera eskainiko du Goiena Telebistak.

Egunean 14:30ean eta 19:30ean eta domeka gauean.

> PROGRAMAZIOA
**Elgetako Espaloian
bideoa grabatu du
Kokein taldeak**

Joan den zapatuan ikus-entzunezkoa grabatu zuen Kokein rock talde eibartarrak Elgetako Espaloia Kafe Antzokian. Haritz Leteren taldeak ordu eta laurdeneko saioa eskaini zuen Elgetan.

Bada, Goienak grabatu egin zuen saioa hiru kamerarekin eta Aste Santuko programazio berezian eskainiko du. Era bera, Kokein taldeak ikus-entzunezkoa kaleratu dezake datozen egunetan.

> ARRASATE IRRATIA
**2006ko elkarritzeta
interesgarrienak
entzungai**

Asko izan dira urtea hasi dugunetik Irratian jaso ditugun gombidatuak eta jorrutako gaiak. Guztia berriz eskaintzeo, beste horrenbeste egun beharko genitzuke. Horregatik, bada, Aste Santuko eta Pazko asteko egunetarako, horien artean aukeraketa egin eta hainbat bilduma prestatu dizuegu.

Egunero izango dituzue, bada, goiz zein arratsaldez, bildumak entzungai.

> MUSIKA
**Aste Santuan ere 24
orduan Arrasate
Irratiaren konpainian**

Ohiko programaziorik ez da izango Aste Santuan eta Pazko astean Arrasate Irratian. Apirilaren 24an itzulik dira albistegiak eta *Igo autobusea* saioa 107.7ra.

Dena dela, jaiegunetan ere izango da Arrasate Irratiaren konpainia. 24 orduan, etenik gabe, musika eskaintza zaba-la eskainiko du irratiak. Ordu eta entzule bakotzera egoki-tutako musika programazioa eskainiko du Arrasate Irratiak 24 orduz.

'NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA' > ZAPATUA ETA DOMEKA, 20:30 / 22:00

Xabier Silveiraren garaipena ikusteko aukera izango da

Xabier Silveirak
irabazi du Elizondon
jokatu berri den
Nafarroako Bertsolari
Txapelketa

GOIENKARIA > BERGARA
Elizondon jokatu zen Nafarroako Bertsolari Txapelketako finala. Taula gainean izan ziren, bes-teak beste: Estitxu Arotzena, Julen Zelaieta, Juan Mari Lopez eta Xabier Silveira.

Goiena Telebistan aukera izango da bertsosaioa ikusteko. Zapatuan eta domekan eskainiko du GOITBK Elizondon jokatutako finala. Egunean, 12:45ean eta 20:30ean, eta domekan, 15:00etan eta 22:00etan. Bi ordu eta erdiko saioa izango da, bertsos-zaleentzako apropoza. Hain zuzen, Xabier Silveirak irabazi zuen txapelketa.



XABIER SILVEIRA Nafarroako bertsolari txapelketa irabazi berri du. GOIENKARIA

'BERBAIRE' > MARTITZENA, 22:15

Aste Santua izango da mintzagai 'Berbaire' saioan datorren astean

GOIENKARIA > BERGARA
Jon Molina abadea, Joserra Elortza Lokarriko kidea eta Maite Aristegi EHNEko idazkari ohia izango dira datorren asteko gom-bidatuak *Berbaire* saioan.

Gorka Etxabek zuzentzen duen saioan Aste Santua izango

da mintzagai. Erlilio ikuspegia aztertuko dute Jon Molina abade gaztearekin eta azken urteotan Aste Santuak izan duen bila-kaera ere izango da berbagai. Gure ibarrean Aste Santuan ez da prozesio berezirik ospatzen eta elizkizunak egiten diren

arren, jendearen parte hartzeak behera egin du. Horren aurrean, turismo eskaintzak nagusitu dira eta debagoiendarrek ibarretik alde egingo dute egunotan. Horren guztiaren gaineko haus-narketa egingo dute *Berbaire* saioko iritzi emaileek. Gainera, Ahotsak taldearen sorrera izango da mintzagai eta Spainiako Estatuko gobernuan izandako aldaketak ere aztertuko ditu *Berbaire*-k. Gogoratu, martitzenean izango da, 22:15ean, Goiena Telebistan.

telebegi

Unai Moraza

'El buscador'

Ez naiz erraz eskandalizatzen diren horietakoa. Jimenez Losantosekin esnatzen naiz. Chuck Norris eta Charles Bronsonen film faxistak atsegin ditut. Bideo-joko biolento eta odoltsuen aldekoan naiz.

Talifan sutsua ez banaiz ere, noiz edo noiz, kronika beltza lantzen duten saioetara hurbildu izan naiz. TVE-1eko *Gente* ikus dezaket, zatitzoren bat-edo. Pepe Navarrekin batera gauero ikusten nituen Alcasserreko nesken hilketan famatuaren gorabeherak. Hala ere, Telecincon, asteburu arratsaldeetan ematen duten *El buscador* saio berriak nire eskema guztiak apurtu ditu.

Saio honek sentsaio arraroak sortzen dizkit. Arraroak eta txarrak. Aurkezleengandik hasita. Aurpegi makabroa du. Kontatzen dituen desgraziekin gozatu egiten duela dirudi. Nire heriotzaren berri ematen imajinatu dezaket. Balizko istripua destripatzen kameren aurrean. Erreportajeak laburrak dira, informazio askorik eman gabe. Eta ahal bada, irudi gogorrekin lagunduta. Ez da planik onena asteburuetarako. Ezinego-na eragiten du.

arrasate irratia

FM 107.7

Apirilaren 13tik 23ra arte

10:00 Elkarrizketa bilduma.
XXI. mendeko euskal idazle gazteen erakusketak; Miren Arizmendiarietta, On Jose Mariaren iloba; udaberriko diskoen aurkezpenak, Gaizka Vitoraren eskutik; lorategiaren geltokia; ETaren su-eten iraunkortuan gaineko lehen errekaioak; Araitz Garai, eraikuntzan lan egiten duen neska gaztea...

14:00 Elkarrizketa bilduma (errepikapena).

Apirilaren 24tik aurrera

10:00-12:00 Igo autobusera!
Albistegia.
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa).
Elkarrizketak.
Ibil Munduan geltokia.
Meteorologien geltokia (Pello Zubala).
Sariak.
Merkatu txikia.
Zorion agurrrak.
(partea hartzeko: 943 71 31).
12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
12:20 Izarreren ordua: abesti ezagunak.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo autobusera! (errepikapena).
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
17:15 Zorion agurrren tarte (errepikapena).

GOITBK programazioa

Eguaztena, 12

13:15 Emisio hasiera 13:20 Marrazki bizidunak 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire 14:15 Danbaka 14:30 M1 14:45 Gaurkoak 14:47 Danbaka. 15:00 Teknopolis. 15:30 M1 15:45 Gaurkoak 15:47 Behazulo 16:15 Klipak. 16:30 M1 16:45 Gaurkoak 16:47 Eltze Beroa 17:00 Berbaire. 17:30 Motzean. 17:45 Gaurkoak. 17:47 16 mm: Iñigo Iruretagoienaren filmlaburra 18:15 Teknopolis 18:45 Gaurkoak 18:47 Zera dio 19:00 Klipak 19:15 Didjerido: Mikel Gallos 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Berriak. 21:15 Teknopolis. 21:45 Berriak. 22:15 16 mm: Ane Muñoz film laburra 22:45 Berriak 23:15 Erreportaje: Bertiz parkea 23:45 Berriak. 00:15 Amaiera.

Eguna, 13

08:00 Emisio hasiera 08:05 Marrazki bizidunak bilduma 11:00 Behazulo: Bognako prozesua. 11:30 Ilunpean 12:00 Eltze beroa 12:15 16 mm 12:45 Sustraia 13:15 Elkartsun bideak. 13:45 Didjerido. 14:15 Klip@. Musika taldeen bideoklipak 14:30 Aste Santuko prozesioa Segurak 15:00 Jazz mintegia. 15:30 Saio berezia. Bertsolaritz 16:30 Didjerido. 17:00 16 mm 17:30 Marrazki bizidunak bilduma 19:15 Eltze beroa. 19:30 Aste Santuko prozesioa. 20:00 Behazulo 20:30 Zera dio eta Motzean 20:45 Ilunpean 21:15 Teknopolis. 21:45 Saio berezia: bertsolaritz. 22:45 Elkartsun bideak. 23:15 Erreportaje 23:45 Emisio amaiera.

Egubakoitza, 14

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak bilduma. 11:00 Klip bilduma. 11:30 Iparrorratza: Sahara. 12:00 Didjerido. 12:30 Eltze beroa. 12:45 Aste Santuko prozesioa Segurak. 13:15 Munduri bueltaka. 13:45 Klip@. 14:15 Marrazki bizidunak. 15:15 Ilunpean: Andoni Agirregomezkorta. 15:45 MKT16:15 Behazulo. 16:45 16 mm. 17:15 Saio berezia. Goierriko bertsolaritz txapelketa 18:15 Elkartsun bideak 18:45 Marrazki bizidunak 19:15 Iparrorratza 19:45 Behazulo. 20:15 Zera dio eta Motzean. 20:30 Ilunpean 21:00 Didjerido. 21:30 16 mm. 22:00 Saio berezia. Bertsolaritz. 23:00 Aste Santuko prozesioa Segurak. 23:45 Emisio amaiera.

Zapatua, 15

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak bilduma. 11:00 Elkartsun bideak. 11:30 Didjerido. 12:00 MKT. 12:15 Behazulo. 12:45 Nafarroako Bertsolaritz Txapelketa Elizondotik. 15:00 Jazz mintegia. 15:30 Klip@ 15:45 Marrazki bizidunak. 17:30 16 mm: Ane Muñoz film laburra 18:00 Ilunpean: Andoni Agirregomezkorta. 18:30 Teknopolis 19:00 Elkartsun bideak. 19:30 Sustraia. 20:00 Iparrorratza: Sahara. 20:30 Nafarroako Bertsolaritz Txapelketa. 22:45 Erreportaje: Betizko paraja. 23:15 16 mm. 23:45 Emisio Amaiera.

Domeka, 16

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak bilduma. 11:00 M1K. 11:30 Erreportaje: Bertiz. 12:00 Ilunpean: Andoni Agirregomezkorta. 12:30 Eltze beroa: Izozkia. 12:45 Didjerido. 13:15 Behazulo. 13:45 Teknopolis. 14:15 Munduri bueltaka: Indonesia. 14:45 Eltze beroa: izozkia. 15:00 Nafarroako Bertsolaritz Txapelketa Elizondotik 17:15 Klip@. 18:00 Marrazki bizidunak 19:15 Elkartsun bideak 19:45 Aste Santuko prozesioa Segurak. 20:15 Zera dio. 20:30 Didjerido 21:00 16 mm: Ane Muñoz film labur bat. 21:30 Su-eten: itxaropen garai. 22:00 Nafarroako Bertsolaritz Txapelketa. 22:45 Erreportaje: Betizko paraja. 23:15 16 mm. 23:45 Emisio Amaiera.

Astelehena, 17

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak bilduma. 11:00 Behazulo: Bizitzako lehenengo hiru urteak. 11:30 Ilunpean: Andoni Agirregomezkorta. 12:00 Eltze beroa: entsalada. 12:15 16 mm: Ane Muñoz. 12:45 Sustraia. 13:15 Elkartsun bideak. 13:45 Didjerido. 14:15 Klip@. 14:30 Su-eten, itxaropen garai. 15:00 Jazz mintegia. 15:30 Behazulo. 16:00 garai. 16:30 Marrazki bizidunak. 17:00 16 mm. 17:30 Marrazki bizidunak. 17:45 Eltze beroa: entsalada 19:30 Marrazki bizidunak. 20:00 Behazulo: haurren lehenengo hiru urteak. 20:30 Zera dio. 20:45 Ilunpean: Andoni Agirregomezkorta. 21:15 Teknopolis. 21:45 Saio berezia. Goierriko bertsolaritz txapelketa, bigarren saioa. 22:45 Elkartsun bideak. 23:15 Erreportaje: Bertiz. 23:45 Emisio Amaiera.

Martitzena, 18

13:15 Emisio hasiera 13:20 Marrazki bizidunak 13:45 Gaurkoak. 13:47 Jazz zikloa 14:15 Zera dio 14:30 M1 14:45 Gaurkoak 14:47 Eltze beroa. 15:00 Elkartsun bideak. 15:30 M1 15:45 Gaurkoak 15:47 16 mm 16:15 Klipak. 16:30 M1 16:45 Gaurkoak 16:47 Zera dio 17:00 Jazz zikloa. 17:30 Neu-re Baitan Danbaka saioan. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Erreportaje: Ukenduak 18:15 Munduri bueltaka: Errusia 18:45 Gaurkoak 18:47 Motzean 19:00 Klipak 19:15 Elkartsun bideak 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Berriak. 21:15 Ilunpean: Andoni Agirregomezkorta. 21:45 Berriak. 22:15 Berbaire 22:45 Berriak 23:15 Behazulo 23:45 Berriak. 00:15 Amaiera.

Apirlak 12-23

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa
eguzteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13

Rock-and-roll gaua



BERGARA

> The Hot Dogs! (Urretxu) eta Cool Panic (Bergara) taldeak gaztetxean

Txapa Irratiak antolatuta, kontzertua egongo da hilaren 22an: The Hot Dogs! taldeak, isilune luzea bukatuta, rock eta glam estiloak jorratuko ditu eta Cool Panic-ekoek (irudian) 70eko rocka, garage punk-a eta psikodelia uztartuko dituzte.

Aste Santua, margolanetan



ARRASATE

> Gurutze-bidearen gaineke erakusketa bisita daiteke gaur, eguztenea

Elizbarrutiak antolatuta, Pablo Sanaguano ekuadortarraren margolan erakusketa dago Harresi aretoan. Jesukristoren pasioa eta heriotza aintzat hartuta, Hirugarren Munduko egoera islatu du. 18:00etan zabalduko dute aretoa.

Ekintza bereziak ludotekan



ESKORIATZA

> Egun bakoitzean jolas mota batekin gozatzeko aukera dute umeek

Umeendako eta gurasoendako honako ekintzak antolatu dituzte ludotekan: etxeko jostailuekin jolasteko eguna (hilak 18), gozokiekin markoak egiteko (hilak 19), film emanaldia (hilak 20) eta elur-pote magikoena (hilak 21).

Antzerkia

BERGARA

> 'Las chicas serias no gustan' antzezlana egongo dute

Las chicas serias no gustan kafe-antzerki emanaldia egongo du Las Torpedolevel taldeak. 50 minutuko ikuskizuna da.

Hilaren 22, zapatua, Tartufo jatetxeen, 23:30ean.

OÑATI

> 'Egizu lo, Tartalo!' umeendako antzezlana egongo dute

Egizu lo, Tartalo! 4-11 urteko umeei zuzendutako antzezlana egongo du Dar-Dar taldeak. *Oihana Tartalo-ren* kobazuloan preso dago. *Tartalo-k* jan ez dezan, denetariko trikimailuak erabiliko ditu, eta, azkenean, ipuineta joko du.

Hilaren 23an, domeka, Santa Ana antzokian, 17:00etan. Sarrera, 3 euro.

Arrasaten, horrez gain, 17 urtetik beherakoendako, 300 euroko irteara bat.

Informazio gehiago: www.aizue.com. Mugaungo: irailak 28.

OÑATI

> Mundumira jaialdiarekin lotutako bi lehiaketa daude

Mundumira 2006 jaialdiko marrazki eta graffiti lehiaketak antolatu dituzte. Marrazki lehiaketan 6-12 urte bitartekoek parte har dezakete, Munduari Bira gaiaren inguruko marrazkiekin; graffiti lehiaketa-ra 15 urteko edo hortik gorakoek parte har dezakete, Bost Kontinenteak dela gaia. Lanak entregatzeko edo graffiti lehiaketan izena emateko, joan gaztelekura apirilaren 28a baino lehen.

Marrazkiak eta graffitiak ikusgai egongo dira Mundumira jaialdiak irauten duen bitartean (maiatzak 26-28).

Erakusketak

BERGARA

> Menchu Gal margolariaren erakusketa Aroztegi aretoan

Menchu Gal margolari irundarraren lanen erakusketa dago Aroztegi aretoan apiril bukaeraraino. Ordutegi berezia izango du aretoak datozenten jaiegunetan: apirilaren 13tik 15era, 12:00-14:00 eta 18:30-21:00; hilaren 16an, 12:00-14:00; hilaren 17an itxita egongo da.

Ordutegia: astegunetan, 18:30-21:00; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:30-21:00; domeketan: 12:00-14:00.

ESKORIATZA

> Pirena lasterketako argazkiak, Itoitz Armendarizen eskutik

Itoitz Armendariz eskoria-zarra Pirena lasterketan parte hartutakoa da. Txakur-lerarekin Pirinioak zeharkatzen dituen proba da. Hor ateratako

argazkiekin erakusketa ipini du Armendarizek.

Inkernu tabernan dago erakusketa. Aitzorrotz elkarreka antolatzen du.

ELGETA

> Maria Dolores Lonbide soraluztarren margolanak

Maria Dolores Lonbide margolari soraluztarra erakusketa ipini du. Ametsen mundura jotzen du Lonbidek inspirazio bila.

Espaloia antzokian dago zabalik.

ARRASATE

> XXI. mendeko euskal idazleen inguruko erakusketa

XXI. mendeko euskal idazleen gazteen inguruko erakusketa antolatu du Euskal Idazleen Elkarrekin. Monterrongo liburutegian dago zabalik, baina liburutegia itxita egongo da hilaren 13tik 17ra bitartean.

Zabalik dago maiatzaren 5era arte.

Lehiaketak

OÑATI

> Arrantzaren gaineke argazkien lehiaketa antolatu dute

Arrantzaren inguruko argazki lehiaketa antolatu du Alzu dendak, Suministros Eviarekin batera. Lanak dendantz utzi behar dira, edo iarrese@hotmail.com helbidera bidali. Saria da arrantz materiala.

Mugaungo, maiatzak 20.

DEBAGOIENA

> 'Gomendatzen dizut...' saria deitu dute gazte bulgoek

Arrasate eta Bergarako gazte informazio zerbitzuek *Gomendatzen dizut...* lehiaketa deitu dute. Oporren gaineko gomendioak eskatzen dituzte. Sariak dira, Arrasaten eta Bergaran, 500 euroko balioa duen oporralditxo bat; eta

ELGETA, ARAMAIO

> Zinema emanaldiak daude egunotan, eta gehiago Pazko astean

Bihar, eguztenea, *Snatch, cerdos y diamantes* (irudian) komedia zoroa emango dute Elgetako Espaloia antzokian, 21:30ean; hurrengo eguztenean, Woody Allenen *Celebrity* emango dute.

Egubakoitzean, Aramaion, Norvegiak eta AEBk ekoiztutako *Un lugar maravilloso* drama emango dute, 22:00etan, eta 16an, domeka, *Tarzan 2* animaziozko filma familia guztia-rendako, 16:00etan.

Oñatin eta Arrasaten, opor ostean hasiko dira berriro zinema emanaldiak.

PROPOSAMENA



Ikuskizunak

ARRASATE

> Maradonaren gaineke proiek-zia egindo dute

La vida de Diego Armando Maradona delako filma emanago dute 3.60 aretoan.

Hilaren 14an, egubakoitz, 3.60 aretoan, 00:00etan.

Musika

ARRASATE

> Disko-jartzale baten emanalia egongo da 3.60 aretoan

Gorka diskojartzaleak saioa egongo du 3.60 aretoan.

Hilak 15, zapatua, 03:00etan.

OÑATI

> Oñati Ganbara Abesbatza-ren gazte taldea

Ganbara Gazte abesbatzak emanaldia egongo du.

Hilak 17, astelehenak, Santa Ana antzokian, 19:00etan.

BERGARA

> Fear Factory eta beste bi talderen kontzertua

Fear Factory taldeak kontzertua egingo du hilaren 22an Jam aretoan. Mendeetako Misery Index taldeek ere joko dute gau horretan.

Hilaren 22an, zapatua, Jam aretoan, 20:00etan. Sarrera 22 euroa.

OÑATI

> Zazpi talderen kontzertua antolatu du gazte batzarrak

Honako taldeek kontzertua egingo dute apirilaren 22an, zapatua: Street Girls, Brigada Criminal, Kupela, Izu, Manolo Kabezabolo, Kultur LAB eta Enboskada.

Hilaren 22an, zapatua, azoka plazan, 18:00etan. 03:00etara.

Bestelakoak

ARRASATE

> 15. urtemuga ospatzeko, denetariko ekintzak gaztetxean

Honako ekintzak egongo dira: Gaztetxe Martxa hilaren 27an (18:00etan, Oñatira iritsiko da; 21:30ean, Arrasatera etorriko dira eta ongiortaria, afaria... egingo dituzte); Gaztetxe Martxaren ekitaldi nazionalera joango dira hilaren 29an; eta *Metropolis* filma emango dute hilaren 30ean.

AGAKOK antolatu ditu ekintzok, 4 pauso 11 amets leloarekin.

ARRASATE

> Gastronomia elkarrekin doke txapelketa jokatuko dute

SUDC elkarreka antolatuta, herriko gastronomia elkarrekin doke txapelketa jokatuko dute, urtero bezala.

Hilak 14, egubakoitz, Kondekuau (Monterron parkearen alboan), 10:00etan.

Hamar mila euro Baltistanera

HITZARMENA Felix Iñurrategi Baltistan Fundazioak astelehenean egin zuen hitzarmena Gipuzkoako Diputazioarekin

XABIER URTZELAI > DONOSTIA
 Felix Iñurrategi Baltistan Fundazioak hamar mila euro jasoko ditu Gipuzkoako Diputazioaren eskuak, Baltistanen abian duten mendiko eskolari bultzada emateko. Astelehenean sinatu zuten hitzarmena fundazio eta Diputazioko ordezkariak.

Eta, diru horrek emango duen fruatuaren gainean egin dugu berba Alberto Iñurrategirekin: "Mendiko eskola egina dago. Aka-so, eraikina jasotzea izan zen lanik errazena. Gero, mendiko materiala bidaltzeko kanpaina egin genuen, eta orain, mendiko eskola edukiz bete gura dugu". Hala, Diputazioak emandako diru hori zamaketariak prestatzenko erabiliko dute: "Altuerako zamaketariak gertatzen gura ditugu, eta horretarako, besteak beste, mendian segurtasunez ibiltzen irakasteko eta sukaldaritzako ikastaroak egingo ditugu".

HILAREN 19AN, INDIARA
 Baltistanen dituzten proiektuekin batera, hurrengo kirol erron-

DIRULAGUNTZA Fundazioak jasoko duen dirua Baltistango mendi eskolako zamaketariak prestatzenko erabiliko dute

ESPEDIZIOAK Alberto Iñurrategik dagoeneko gertu ditu hurrengo kirol erronak: Shivling eta Everest

karen gainean ere egin dugu berba Aretxabaletakoarekin: "Datorren astean hartuko dut Jon Belokieta eta Eneka Guenetxearekin batera Shivlin (6.543 metro) mendirako bidea. Gure helburuera ondo moldatzen den men dia da, eta ondo pasatzeko asmoarekin goaz. Iparreko ertzetik egingo dugu saia kera, 1993an austriarrek ireki zuten bidetik; igoera teknikoa da, mistoa".

Ekainean etxera itzulitakoan hasiko da Alberto udazkeneko proiektuan buru-balarri: "Orduan, Juan Vallejo batuko zaigu, Everesterako (8.848 metro) igotzeko. Everest ere iparretik igotzen ahaleginduko gara". Alberto eta konpainia japoniarrek (1980an) ireki zuten korridorea Hornbeinek (1963an) irekitakoarekin kateaten ahaleginduko dira. 3.000 metroko korridorea da, Supercouloir moduan ezaguna: "Bide hori suitzarrek egin zuten ezagun, oso igoera azkarra eginda (1986an)". Orduan, Erhard Loretan-ek eta Jean Troillet-ek bi bibak baino ez zituzten egin.



FELIX IÑURRATEGI BALTISTAN Fundazioko ordezkari Inazio eta Alberto, Iñaki Ugarteburu eta Fernando Tapiarekin. GOIENKARIA

ahobero

"Batasuna legeztatzea izango litzateke, Ku Kux Klan legeztatzea bezala"

Carmelo Barrio >
 Euskadiko PPko Idazkari Nagusia

Garai berriak eskatzen ditu jarrera berriak eta politika egiteko modu berriak. Berbak ere izan beharko lirateke neurruagoak eta berbetatik haratago, ekintzetara pasa. Ona litzateke eskubide guztiak errespetatzetik hastea, dene-nak, eta baita politikoak ere.

iturri onetik

Euskadiko Motokros Txapelketako proba Bergaran jokatuko da ekainaren 3an

Euskadiko Motokros Txapelketarako proba puntuagarria Bergaran jokatuko da aurten. Azken urteotan Arrasaten antolatu dute, baina Musakolako kiroldegi berriko lanak tarteko, txapelketako laugarren proba Bergarako Pazko- etan jokatuko da, ekainaren 3an. Mayc-Candy lantegiaren inguruko lursailetan egokituko dute pista, eta, antolatzai-leen arabera, 160 pilotu inguru hartuko dute parte.

piperraутса

Mikel Irizar > www.goina.net/blogak/piperraутса

Burusoilaren ametsa

Aldaketa giroan ugaldu egiten dira aukerak eta arriskuak, berezkoa da hori. Eta, oraintxe gurean bizi den unea horietakoa da, aukerez eta arriskuz betea. Denon inteligenzia lortu beharko du aukerak gauza daitezten eta arriskuak ez.

Arriskuen artean, ez da txikiena pentsatzea gatazka-ren konponketarekin guztia konponduko dela, halako mirari masibo bat gertatuko dela eta, aspaldi burusoil gelditu zenari ere berriro jaioko zaiola ilea.

Kabitu gaitezen. Autoari esku-frenoak kentzea besterik ez dugu egin, luzaro geldi egon dena mugitzen has daiteke. Negoziazio mahaian zilegi izango da goitik ibiltzea eskarietan, baina ez lainotan. Mahaia amaitu eta biharamunean ez da gauzatuko independentzia. Eta burusoilak burusoil iraungo du.

ai, ene!



Erasotzaile ugari izango lituzkeen hiri gozoa

Song Dong artista txinatarra 72.000 gaiela ingururekin egin du maketa hori, Asiako hirien berdintasuna salatzeko asmoz.

<http://tinyurl.com/ajyqudiak>

e d e r f u

masterreka 9-11 Tel.: 943 76 58 79
 barrenkale 23 Tel. /faxa: 943 76 29 65
 BERGARA

25% eko deskontua koltxoieta